



ttipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus

2016ko ekainaren 30a | XXXVI. urtea | 665. zenbakia

Asier ARRETXEA → 44



Narbarteko gaztea
euskal selekzioarekin

Herrietako bestak

Azpilkueta eta Lesaka

BERA → 19

Joseba Aranibar preso
libre epaiketa egin arte

LEITZA → 32

Mila kilo material
Siriako errefuxiatuentzat

ARANO → 33

Hausnarketa herriaren
etorkizunaz uztailaren 1ean

SARA → 41

Eresoinka taldeak
80 urte egin ditu

Bertze kolpe bat Nafarroako idatzizko prentsa, irradi eta online hedabideentzat

Lau urtez Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzarik gabe egon dira euskarazko hedabideak. 2016an diru-laguntzak izanen dira, baina diru kopuru tikiagoa jasoko dute. Gainera, 24 urtez Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzarik ere ez dute izanen. 2011tik 2016ra %50,30 murriztu dira Nafarroako idatzizko prentsa, irradi eta on line hedabideetarako diru-laguntzak, Nafarroako Gobernu eta Eusko Jaurlaritzaren kontuan hartuta.

→ 3



UDALEKUAK

ARGAZKIA: AMAIA ZINKUNEGI LARRAÑAGA

Lagunartean gozatzuz



Eskola garaia bukatu arren, udalekuei esker, ikasi eta jolasteko aukera ederra izanen dute neska-mutikoez uztailan eta abuztuan. Udako jostaldiak izanen dituzte Baztanen eta gainerakoetan udaleku irekiak. Han edo hemen, tokia edozein dela ere, astelehenetik ortziralerako goizak elkarrekin pasako dituzte eskualdeko ume aunitzek. Batzuek euskaraz, bertzeak ingelesez.

hai
egin dun
zaizkin
izan ditun
animatu
ninduan

Ikasi nahi badun anima hadi!

Hitanoaren erabilerak eta ezagutzak beheiti egin duela eta, zukatik hizarako saltoa eman nahi dutenei erremintak eta solasteko txoko bat eskaini diete Baztango AEK eta Bortzirietako IKA euskaltegiek. Hitanoaren orainaz eta geroaz solasteko irakasle, ikasle eta eguneroan hitanoa erabiltzen dutenen hitzak bildu ditin TTIPI-TTAPAK.

ERREPORTAJEA → 4-5

BORTZIRIAK → 23

Bortziriarrek euskaltegia doan hurrengo ikasturtean

Ikasleek 100 euroko fidantza ordaindu beharko dute irailean, eta bueltan jasoko dute ikasturte bukatzean, guttieneko asistentzia betez gero.

ZOKKETAK → 52



Txartela egiteko deitu
948 63 54 58ra edo idatzi
info@ttipi.eusera.

ZER EGITEN DUZU HERRIA BIZI MANTENTZEKO?

NIK HERRI BIZI BAT NAHI DUT, ZUK?

DenokBat Nafarroako Gobernua

Liderrak gure eskualdean eta baita azterketa egiterakoan CIESek Nafarroa Garaiko mendialdean hartu duen 111 udalerrien eremuan ere

Ttipi-Ttapa 28.000 irakurle

DIARIO DE NAVARRA	14.000 irakurle
DIARIO DE NOTICIAS	12.000 irakurle
GARA	3.000 irakurle
EL PAÍS	3.000 irakurle
MARCA	2.000 irakurle
EL MUNDO	2.000 irakurle
BERRIA	1.000 irakurle
BESTE BATZUK	8.000 irakurle

SEXUAREN ARABERA

GIZONAK	%55,00
EMAKUMEAK	%45,00

ADINAREN ARABERA

14-24 URTE	%13,40
25-34 URTE	%10,40
35-44 URTE	%27,60
45-54 URTE	%12,70
55-64 URTE	%17,80
+64 URTE	%18,20

IKASKETA MAILAREN ARABERA

IKASKETARIK GABE	%27,60
OINARRIZKO BATXILERGOA	%17,80
GOI MAILAKO BATXILERGOA	%26,40
UNIBERTSITATEA	%28,30

Datu iturria: CIES, 2016ko lehenengo neurketa

Nafarroako euskarazko idatzizko prentsa, irrati eta on line hedabideak

Diru-laguntzen bilakaera



2011tik 2016ra
- 50,30 %
murriztu dira
laguntzak euskarazko
hedabideentzat

Nafarroako idatzizko prentsa, irrati eta on line hedabideetarako diru-laguntzak, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzarenak kontuan hartuta.



Jaurlaritzak iaz Nafarroako euskarazko Tokiko ALDIZKARI-entzat 141.262 € eta Naf. Gobernuak 0 €
Aurten Nafarroako Gobernuak 120.000 € (iaz baino hedabide gehiagoren artean banatzeko) eta Jaurlaritzak 0 €

2011 > 164.835€
2015 > 141.262€
2016 > 120.000€



Jaurlaritzak iaz Nafarroako euskarazko IRRATI komertzialentzat 51.549 € eta Naf. Gobernuak 0 €
Aurten Nafarroako Gobernuak 50.000 € eta Jaurlaritzak 0 €
(*) Gehi euskarazko udal irratientzat 35.000 €

2011 > 100.563€
2015 > 51.549€
2016 > 50.000€ (*)



Jaurlaritzak iaz euskarazko AGERKARI DIGITAL-entzat 18.095 € eta Naf. Gobernuak 0 €
Aurten Nafarroako Gobernuak 15.000 €, euskarazkoak eta elebidunak sartuta eta Jaurlaritzak 0 €

2011 > 12.654€
2015 > 18.095€
2016 > 15.000€

Urtetik urtera egoera makurragoan

Usteak erdi ustel. Aldaketa ez da hoberako izan Nafarroako euskarazko hedabideentzat

Lau urtez (2012-2015) Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzarik gabe egon ondotik, 2016an diru-laguntzak izanen dira. Berri pozgarria dirudi, baina egoera makurragoan geldituko dira, diru kopuru tikiagoa jasoko dutelako. Gainera, 24 urtez Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzarik ere ez dute izanen, guttienez ondoko hiru urteetan.

Historikoki, Eusko Jaurlaritzak Nafarroako Gobernuak berak baino diru gehiago inbertitu du Nafarroako euskarazko hedabideetan. Hemendik aitzinera ordea, **Eusko Jaurlaritzak Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuarekin horrela adostuta**, ez ditu herrialde honetako euskarazko hedabideak diruz lagunduko.

Nafarroako Gobernuaren 2016ko laguntza deialdiak baditu hainbat 'bitxikeria' aipagarri direnak:

~~Azaroa~~ ~~Abendua~~

- 2016ko urtarrilaren 1etik urriaren 31 bitarteko jarduerak bakarrik lagunduko ditu. Azaro eta abenduan egiten dena laguntza deialditik kanpo geldituko da.



- Diru-laguntzaren irizpideak euskarazko hedabideen sektorearekin batera hitz egin gabe erabaki dira, dagoen errealitatea ezagutu gabe.

Ekainaren 9an amaitu zen laguntza deialdira eskaerak aurkezteko epea.

Euskarabidearen esku dago laguntza horien ebazpena ematea, gehienez ere irailaren 10erako.

Diario de Navarra eta Diario de Noticias egunkariei
+ 921,28 %
igoko die laguntza

Diario de Navarrak 4.341,80€ hartu zituen 2011n Euskarabidetik, eta Diario de Noticias-ek batere ez.

2016an **bakoitzak 20.000€ hartuko ditu.**

HITANOA → ORAINA ETA GEROAZ

Hi ere, solas hadi lagun!

Hikalagun taldeak sortzeko hitano ikastaroak antolatu dituzten Baztan eta Bortzirietan

Etxean jaso ezean, aukera gutti zauden hitanoa ikasteko. *Nondik hasi eta norekin?* izaten dun oztupo nagusia. Bistakoa dun gainera, hitanoaren erabilerak eta ezagutzak beheiti egin duela azken hamarkadetan, batez ere emakumeen artean. Hori ikusita, Solaslagunak abiatutako egitasmoarekin bat egin eta zukatik hizarako saltoa eman nahi dutenei erremintak eta solasteko txoko bat eskaini zizkieten Baztango AEK eta Bortzirietako IKA euskaltegiek. Hitanoaren orainaz eta geroaz solasteko irakasleen, ikasleen eta egunerokoan hitanoa erabiltzen dutenen hitzak bildu ditin TTIPI-TTAPAK.

Eneritz IRAOLA

Ez zagon hitanoaren erabileraren neurtzen duen azterketa edo kopuru zehatzik, horregatik, norberaren belarriak bihurtzen ditun neurgailu. «35 urte-tik beheitiko jendeak guttiago egiten din hika», «herri ttikietan gehixeago erabiltzen dun», «baserri inguruan mantendu dun gehien», «hutsunerik handiena, dudarik gabe, nokaren erabileran dun, emakumezkoekin eta emakumezkoen artean gero eta guttiagotan aditzen dun» izan ditun TTIPI-TTAPAK jaso dituen erantzunak.

Egoerarekin kezkatuta, Solaslagunak abiatutako egitasmoarekin bat egin eta Bortzirietako IKA eta Baztango AEK euskaltegiek ikastaroak antolatu dituzten «hiketan ikasteko baliabideak eskaini behar genituela erabaki geninan» azaldu zigituenan. 8 astez, bi orduko saioak egin dituzten eta jasotako

DATUA

40

LAGUNEK

Parte-hartu ditin ikastaroetan.
25 eta 50 urte bitartekoak.
Hika maila ezberdinetako euskaldunak

erantzuna «hagitz erantzun ona» izan dela azpimarratzen ditin Beñardo ta Oianko irakasleek «eskualdean 40 lagunek eman ditin izena, ez geninan hainbertze espero!». Adin eta hika maila ezberdinetako euskaldunak bildu ditun «batzuk erabiltzeko ohitura dutenak eta errepaso modura lantzerantz etorri ditun. Bertzeek ezaguna bai, baina erabiltzeko ohiturarik ez dutenez, hori lantzerantz hurbildu ditun».

EZAGUTZATIK ERABILERARAKO JAUZIA

Ikasitako hori egunerokoan txertatzea izaten dun hurrengo pausoa, «jasotako erraminta horiek praktikan paratzeko aukera emateko solaslagun taldeak sortu ditinagu». Garrantzitsua dun oso

3

HIKALAGUN TALDE
elkartzen ditun eskualdean eta
gehiago sortzea dun helburua

hai
egin dun
zaizkin
izan ditun
Hi!
animatu
hadi!

beraien ustez, «inguruan hika solasteko inor harrapatzen ez badu, astean behin lagun artean, hikalaguna izanen din bidebidexka».

Oraingoz 3 hikalagun talde ari ditun eskualdean «12 lagun eta bertze bi talde gehiago sortzea izanen luke gure helburua. Honetarako hiketan dakien jendea ere behar dinagu, talde hauetan parte hartzeko eta gure hika hitzun berrien erueda

izateko». Parte-hartzeko interesa eduki dezakeen jendeari deia egin ziotenan «gure alde-tik, hiketan dakien jendea animatu nahi dinagu gure Solaslagun taldeetan parte hartzera. Haien transmisioa guretako arras inportantea baita». Hitanoak iraun dezan «beharrezkoa izanen dun pauso baikotza. Ezin dinagu gure nortasunaren eta hizkuntzaren parte bat galtzen utzi».



HIKALAGUNAREN GARRANTZIA

«Norberak hika solasteko ohitura duen nor-nahirekin ahal guztietan praktikatzea dun komenigarriena. Astean behin lagun artean, hikalaguna izanen din bidebidexka».

Beñardo GOIETXE
Bortzirietako IKA euskaltegiko irakaslea



NORTASUN GEHIGARRIA

«Hiketan solastatzea euskarak ematen digun bertze espazio bat dun, bertze maila bat; lagun artekoa, konfidantzazkoa, hurbila, herrikoa...».

Oianko GARDE
Baztango AEK euskaltegiko irakaslea

OHARRA: Kazetariak erreportajea noka idaztea erabaki du.

HITANOA ERABILTZEN DUTENEKIN SOLASEAN



Begoña ETXANDI

ARRAIOZ

«Badakigunok erabiltzen segi eta ikasi nahi badun anima hadi!»

Hitanoa ttiki-ttikitatik erabiltzen din Begoñak «etxean haurrideen artean hiketan aritzen gintunan eta lagunekin ere. Gure gurasoak beren haurrideekin ere hiketan mintzatzan zitunan eta beraiei adituz, guk berdin egiten geninan». Gauregun «haurrideekin, lagunekin... konfidantza dudan jendearekin erabiltzen dinat» azaldu zigun, «gizonekin toka eta emakumeekin noka aritzen naun». Hitanoa baserri inguruan eta herri ttikietan gehiago mantendu dela uste din «erdararen influentzia ttikiagoa izan delako». Dena den, hitanoaren egungo egoeraz nahiko baikor solasten dun «orain arte galdu behar zen euskara solasteko modu bat zela iduritzen zitzaidan, ez baita eskoletan erakusten, euskalkiekin pasatzen den bezala. Orain berriz, bizitasuna hartzen ari dela sumatzen dinat, jende gaztearengan interesa nabaritzen dinat». Argi zaukan berak «hiketan solastea zuketan beza in erabilgarria dun eta eskoletan berdin-berdin erakutsi beharko luken». AEK bezalako erakundearen papera «ezinbertze koa» dun bere ustez «gaur egungo gazteei erakutsiz gero, ondorengoek ere ikasiko baitute». Berak bere apurtxo egiten din, «orain dela hiru urte AEK hikalaguna egitasmoan parte hartzeko gonbidapena igorri eta animatu nindunan. Dozenerdi bat lagun elkartzen gaitun ortzegunetan, kafe baten inguruan mundua konpontzen dinagu, hiketan».



Ane GARMENDIA

ELIZONDO

«Ikastaro hauei esker hitanoa berriz ere karrketan aditzen hasi dun»

27 urte zauzkan Ane eta ikastaroetan hasi arte ez din «behin ere hitanoa ikasteko aukerarik izan». Aditu ere, gutti «gizonen artean zerbait bai, baina emakumeen artean deus ez». Ikastaroaren berri jakindakoa, «gure artean animatu gindunan batzuk, aukera ederra zela ikusi genuelako». Izan ere, etxean ez badun jasotzen, «ni, zu... hitanoa zuzenean kendu egiten dun aditz taulatik eskolan». Ikastaroak «arras aberasgarriak» izan ditun beretako eta orain «ikasitakoa egunerokoan sartzeko ahalegina» egiten ari dun «lagunak gaitun ikastaroetan ibilitako asko eta hemendik aitzinera, gure artean hika solastea erabaki dinagu. Emakumeak gaitun gehiengo eta horrela noka ere gehiago aditzen hasiko dun karrketan». Hika-solaslagun taldean ere bazabilen «Elizondon bi neskatiko eta mutiko bat elkartzen gaitun, toka eta noka aritzeko. Eta bertze emakume bat ere bai, hika solasten dakiena, astean behin etortzen dun solasean aritzeko». Bere ustez, hikalagun saio hauek, «beharrezkoak ditun soltura hartzeko». Oraingo pertsona jakin batzuekin guztia hika solasteko erabakia hartu din eta «horiekin ohitura hartuta, gero izanen dinagu gehiagorekin aritzeko aukera. Ea kuadrilla honetatik hasi eta zabaltzea lortzen dugun» zion. Konpromisoa hartu dituen beraiek eta ari ditun bertzetan, «hitanoa karrketan baina bizirik egoteko modu bakarra delako».



Luis OLAETXEA

LESAKA

«Hitanoari eusteko transmisio lana egiten asmatu beharko dinagu»

Zer ikusi, hura ikasi zion esatera zaharrak eta hala izan zunan Luisen kasuan ere «gurasoek senideen artean dena hika egiten zitenan, bai aitak eta bai amak eta gu ere halaxe» zion. Etxean ikasitakoa egunero erabili din Luisek «senideekin, lagunekin, lanean.. hika aritzen naun. Gehienbat gizonezkoak direnez toka aritzen naun gehiago, baina arrebekin noka aritzen naun». Dena den, erabilek «nabarmen beheiti» egin duela uste din «nire ilobek adibidez, ez dituen hika egiten». Bere gazte denboran berriz, «oritzen naun futbolearen aritzen girela mendi kaxko batean eta denok hika egiten geninala. Naturalki ateratzen zitzaigun». Orain, «hazi eta bizi izandako eremuak zeresan handia din. Baserri giroan eutsi zion, baina karrketan ez dun askorik aditzen. Hemen Lesakan bertan ere hika karrkan entzun nahi badun etorri hadi feria egunean, hortik aitzinera...». Adinean ere nabari dun alde «30 urteko beheitikoek ez dituen aunitzik erabiltzen». Arrazoa ez din argi, «bazagon mugaren bat, laguntzen ez duena. Guk adibidez, anai arreba guztiok ere ez dinagu elkarrekin hika egiten eta misterio bat dun. Batzuekin bai eta bertzeekin ez». Hitanoari eusteko «dakitenek, ez dakitenei erakustea» izanen dun gakoa bere ustez, «transmisio lan hori egiten asmatzea». Hitzun berriak behar baitituen hitanoak, hala solasten direnek solaslagun berriak izateko.



Monika AGIRRE

BERA

«Ikastaroan ikasitako guztia gero praktikan jarri beharra zego!»

«Hitanoz ez zekien euskalduna» halaxe aurkeztu din bere burua Monikak. Orain dela gutti arte ez din hikaz edo hitanoz solasteko aukerarik izan «ez zaidan inor hikaz edo hitanoz zuzendu eta ni ere egia erran, ez naun inorekin saiatu. Nire familian ere ez zagon ohiturarik, zukaz solasten gaitun beti eta berdin pasatu izan zaidan laguneren artean». Eskola garaian ere aukera gutti, «oritzen naun eskolan gainetik ikusi genituela hika eta hitano formako aditzak, baina ezin erran eskolan erakutsi zigutenik». Ikasturte honetan hasi dun Bortzirietako IKA euskaltegian lanean eta bertan hasi dun hika edo hitanoa hurbiletik ezagutzen, «lankide batzuk euren artean hikaz aritzen ditun eta. Hor izan dinat ikasteko aukera, baina egia dun ikastaroan hasi naizen arte ez naizela pauso ematera ausartu. Orain behin behin lankideekin eta bertze hainbat ezagunekin hasi naun poliki-poliki hika erabiltzen». Ikastaroan «aski gustura» hartu din parte bertan elkartu garen gehienak lehendik ere ezagunak nitinan eta giro polita sortu dun taldean, lotsa galtzeko eta ikasteko proposa». Oraindik gure euskalkiko formak ikasten eta barnatzen saiatzen ari dela aitortu zigun baina badin ikasitakoa egunerokora emateko aukera «hori bai, zuka erabiltzearen ohitura haustea kostatu egiten dun, eta batzuetan hori egiten zaidan zailena».



Nire txanda
Koro IRAZOKI

Gure etxea

Gure euskaldun kulturaren etxeak sekulako inportantzia izan du, eta hortik heldu dira seguraski gaur egungo hainbat abizen. Egunerokotasunean ez gara konturatzen, baina begira ze jatorri pulita daukaten hoietakoz batzuk: larrean egindako etxeari *Larretxea* deitu izanen zioten. Etxe haundi bat egin zuen bateri *Etxandi* erranen zioten. Lehen-lehenagoko etxeen teilatuak lapitzezkoak izaten omen ziren, eta teilaz egiten hasi ziren lehenbiziko etxeeri *Teiletxea* deituko zioten. Hartz egindako etxeak *Arretxea* izanen ziren. Herriaren goitiko aldean egiten zen etxeari *Goikoetxea* edo *Goienetxea* deituko zioten, eta beheitiko aldean egindakoari berriz, *Etxebere*. Bide ondoan egindakoa *Etxabide* izanen zen, eta apeza bizi zen etxea berriz, *Apezetxea*. Eta gisa hortan ere baditugu *Etxeberria*, *Etxarte*, *Etxegarai*, *Etxepare*, *Etxepeteleku*, *Etxebeste*... Bixtan da etxeak izan duen garrantzia gure aintzinekoen artean»

«Bixtan da etxeak izan duen garrantzia gure aintzinekoen artean»

Ezpala

Aitor AROTZENA


Denek ala inork ez...

Denek dakite zakurra dela gizakiaren lagunik handiena. Gehienek, identifikatzeko txipa eta amorraren kontrako txertoa jartzen dizkiete. Batzuk, zuhaitz genealogikoak osatzen dizkiete birraitatxi-amatxien aintzinakoak bitarte, beraien pedigria eta odol garbia erakusteko. Bakan batzuk jantzi eta orraztu ere egiten dituzte... Eta inork ez al ditu espaloietan egiten dituzten kakak bilduko?

Nabarmentzekoak



Jon BARBERENA
Olerki bilduma saritua



Asier VALVERDE
Bartzelona-Donostia Non Stop



Juanita LARRALDE
41 urtez irakasle Arantzan

Iruña Hiria Nazioarteko Poesia Lehiaketan sari nagusia lortu du euskarazko atalean, *Malatsa* bildumarekin. 3.000 euro eta lana argitaratua ikustea izanen da elizondarraren saria.

770 kilometroko mendi bizikleta ibilbide gogorra 46 ordutan egin zuen beratarrak ekainaren 10 eta 12aren artean. Barkarkako lanean, meritu handiko laugarren postuan sailkatu zen.

1975ean hasi zen irakaskuntzan Petrise-nekoa eta ikasturte bukaerarekin batera erretiroa hartu du. Ekainaren 9an arantzar aunitzen andereño izan dena omenu zuten eskolan.

Atzera begira → 2002-VII-04 / TTIPI-TTAPA 329 zk.



Iturengo eguzki-etxe jasangarriaz Iban Isasirekin

Iban Isasi iturendarrak irabazi zuen 2002an Nafarroako Unibertsitate Publikoko Energia Berriztagarrien katedrak eta EHN enpresak, ikasketa bukaerako proiektu onenari emandako saria. Proiektuan, Iturenen *eguzki-etxe jasangarri* bat egitea aztertzen zuen, eta analisi orokorra egin ondotik, antzeko etxe arrunt batekin konparatuta, dezente aurreztuko litzateke: energia-kontsumoaren kopuru osoan %40 guttiago. «Auniztan, hasieran garestixeago pagatzen dena, luzera, merkeago ateratzen da. Eguzki-etxe jasangarriekin ere hori gertatzen da: Eguzki-etxeak egitea hemen ere arras errentagarri da, orokorrean».

ttipi-ttapa

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2016ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	20€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	74€
Amerika eta Australia	124€



Bortzietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Zorioneko eskola

Joseba URROTZ

Akitu da eskola, ikasturtea deitzen zaiona eta jende aunitzen bizimodua arautzen duena. Eskola madarikatua ikasle batzuentzat, aspergarria bertzeentzat, zorionekoa akaso norbaitentzat? Guraso aunitzentzat bai, haurrak etxean edukitzea ez baita gauza erraza. Gai hau hartu dut, nik umerik ez izanda ere, nere inguruan ikusten baititut maiz xamar kezka eta errenkurak, gurasoenak eta haurrenak.

Ume aunitzek diote ez dutela eskolara joan nahi, gutako aunitzek seguraski erran izanen genuen bezala. Edo eskola behin betiko akitu edo kenduko dutela amesten dute aunitzek. Batzuk, tripako minez eta atsekabez, negarrez, keja huts bat baino zerbaite gehiago. Gainera, ebaluaketa garaiaren ondotik, ditxosozko notak, negarrak eta guraso eta umeen atsekabeak.

Orduan, noiz hasiko gara hainbat gauza aldatzen, jakinik ere badela garaia? Nik uste dut ez dela inor ausartzen. Bai, garai batean dirudunak zuten eskola izateko aukera, eta behartsuenak ere aukera izatea gauza ederra da. Baina garaiak aldatu dira, eta bertze pausu bat emateko ordua da.

Ze zentzu du 5 edo 8 urteko ume batek eskolan egindakoari nota bat paratzeak? Nota ona duena, pozik, eta aprobatzeko gai izan ez dena berriz burumakur, sistema arbitrario batek erabakita, bere gabezien islada eta gizartearen aitzinean ikusten dituelako. Eta horrela hasten da neska-mutiko aunitzen kalbarioa, eskolarako balio ez duenaren etiketarekin. Irakasle izan nintzen, DBH gaintu ez zuten ikasleekin eta, "gu tontuk gattuk" erraten zuten, bertze edozein bezain pertsona baliogarri eta jatorrak zirenak.

Zer ari dira 40 urte inguruko irakasle aunitz, orain 20 urte ikasle garaian eredu aldaketa baten alde zaudenak? 4 belaunaldi atzeragoko eredu berarekin segitzen dugu: asignatura batzuk ikasi, aprobatu eta ahal bada nota onak ateri, titulo bat ateri eta lan bat bilatu. Portzierto, zergatik sartu zaigu buruan ikastea lan bat aurkitzeko dela? Pertsona garatzeko eta ikuspegi zabaltzeko beharko luke, gero gerokoak, berdin, denok dakigu eskolan ikasi eta gero, gehiena lantokian ikasten dela.

Hor daude curriculumak, konpetentziak, gaitasunak... Hitz zorrotzak, pertsonak neurtu, klasifikatu, estutu, kontrolatzeko... Makinak bihurtzeko.

40 urterekin zein izanen da gure kezka? Ea algebra problemak konpontzen dakizkigun edo zorionsuak ote garen? Balore krisi handia duen gizarte honetan, ez dut uste konponbidea haurrak eskolatik bulkaka pasatzea denik, gu ez garena haiek izan daitezten. Haien erranen dute: ni zertan izanen naiz zuek ez zaretena?

Jakin nahi duenak, ikusi dezala Koldo Saratxagak, Irizar enpresa zulotik ateri eta goi mailara eraman zuek dioena, nik baino hobeki azaltzen du. *Eskolan egin beharreko hurrengo pausua, idatzi eta irakurtzeaz gainera, zorionsu izaten ikastea da.*

Independentzia bai?

Esteban IRUSTA MALLEA

Lagun batzuekin sarritan hitz egiten dugu Euskal Herriaren independentzia hipotetikoari buruz. Denetariko iritziak azaltzen dira. Gehienok bat gatzotz Euskal Herriaren Independentzia lortzea ona izango zela geure bizi maila hobetzeko, baina beti agertzen da baten bat horrela ikusten ez duena. Batzuen eta besteen ideiak defenditzeko arrazoiak oso desberdinak dira. Familiako istorioek zeresan handia dute, seme-alaben iritzietan. Egia da, kasu askotan, seme-alabak kontrako bidea hartzen dutela, baina gehienetan, gurasoen bidetik jarraitzen dute. Baditut lagunak, urte askotan Espainian bizi direnak eta beti gure kontrako informazioa entzun eta irakurri ondoren neurri baten "españolizata" daudenak. Beraiekin hitz egitean gai honi buruz, onartzen dute informazioak duen eragina. Sasoi baten, Espainia aldean beldurrez ziren Euskal Herrira bisitan etortzeko, komunikabideek Euskal Herriko gizartearen giroa oso beltz jartzen zuten. Horrelako informazioak asko markatzen du gure mentalitatea. Neuk ere badut nire esperientzia pertsonala. Sasoi haietan Amerikako lurretan nengoan, eta bertako komunikabideak urte baten zehar jaso ondoren, nire arduratxoa, kezkatxoa izan nuen itzultzean. Jasotzen dugun informazioaren morroi gara? Neurri handi baten bai. Zergatik batzuk Euskal Herriko Independentziaren aldekoak gara eta beste batzuk kontrakoak? Arrazoiak asko izan daitezke, baina nagusiki geure bizitzan txikitatik, etxetik hasita, bizi izan dugun giroa erabakigarria izaten da geroko pentsakeran. Beste aldetik inguruko giroak, lagunak, irakasleak, zer irakurtzen dugun, egoera pertsonalak ere bere eragina dute. Batzutan inguru horrek etxekoak baino indar gehiago dauka, eta kasu horietan gurasoen kontrako ideiak defenditzea normala izan daiteke, eta sarritan horrela gertatzen da. Indar guzti hauek gaintetik, erabaki pertsonalak gelditzen dira. Guztiz objektibo izatea oso zaila da, baina hori kontuan izanda, jasotzen dugun informazioa onartu aurretik hausnarketa egunero eta etengabe egitea beharturik gaudu. Objektibotasun handienaz hitzeginda, ona izango litzateke Independentzia Euskal Herriarentzat? Beste aldetik, garai bateko gertaeren ondorioz sortutako Estatuak betirako dira? Ezin dira aldatu? Duela gutxi, egunkari batean agertu zen artikulu bat, Espainian lurralde batek independentzia lortzeko gaintu behar zituen legeak, praktikan, eskurazina egiten zutena. Egia da, legeak bete behar direla, baina legeak alda daitezke eta aldatu behar dira herritarrek hala eskatzen badute. Beste aldetik, beldurra sartzean saiatzen dira. Herri txikia izanez, Estatu batek dauzkan eskakizunei aurre egitea ezina izango balitz bezala. Baina ideia okerra da. Alderantziz, Europan, Estatu txikiak duten bizi-maila handienetan baino hobea da. Ekonomikoki, gaur egun, Euskadik bizi-maila Espainiak duena baino hobea bada, zeresanik ez, burujabetza, independentzia, izango balu.

Irakurleak mintzo**Argiako Gorka Bereziartua kazetariarekin elkartasuna****ARGIA aldizkaria**

Ekainaren 19an, Donostiako Gipuzkoa Plazan, Ertzaintzak Gorka Bereziartua Argiako kazetariari eraso egin dio, hau bere lana egiten ari zela.

Ertzaintza asanbladan lurrean eserita zeudenak identifikatzen eta kolpatzen hasi zen unean, 16:20ean, jarraipena egiten ari zen Bereziartuak bideoan grabatu zuen. Une batean, agente bat zuzenean bereganajoan, eskuaz mugikorra kentzen saiatu eta lurrera botatu zuen, galtza eta jertsea hautsiz, honek kazetaria zela behin eta berriz esan arren. Ez zioten kazetari txartela ateratzeko aukerarik eman, eta behin lurrean, txartela atera eta erakutsi arren, erretenu egin zuten. Era horretan, hainbat zauritu eragin zituen kargaren momentua ongi grabatzea ekidin zuen Ertzaintzak. Bereziartuak salaketa jarri du eraso egin zion ertzainaren aurka.

Argiako lantaldeak Gorka Bereziartuari babes eta elkartasun osoa adierazten dio. Horrez gain, Ertzaintzaren jarrera salatu nahi du. Eraso horien atzean, kazetariak kiltzeko asmoa dagoela ikusten dugu, eta informatzeko eskubidea unibertsala dela gogorarazi nahi dugu. Herritarrok gertatzen ari denaren berri izateko eskubidea dugu. Honekin lotuta, Gipuzkoa Zutik dinamikaren baitan,

1- Barrote artetik begiratuta txoritto bat ageri da ta berarekin hizketan hasiz gogoia joan zait herrira gure eskualdeko bertso lehia bat buruan jira ta bira bertsozalea nahiz tira! ta bertsoaren harira (bis) eguneroko kontakizuna izango da nere gida kartzela hontako bizipenak ta errealitateak dira (bis).

2. Galdezka zabiltz txoritto hori zer nun goizean urduri arratsaldeko vis-a zela ta odola bizkor zait mugi urruntasunak eragin ditu gudan dozenaka zauri urrun baitago Kantauri handik Berara pausu bi (bis) Euskal Herritik ahalik urrunen ekartzen gaituzte guri ta mendekua senideengan jarri dutela dirudi (bis).

3. Eguerdi ondoren bixita arte betiko nerbio tortilla jende mordoxka dispertsioak errepidean du hila senideei eginaraziz kriston kilometro pila etortzeko ia mila zer nolako katramila! (bis) zelda barruan harat ta hunat ia noiz entzungo zerraila ta azkenerako kartzeleroa etorri da nere bila (bis).

Donostiako Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren ekintzak bideoan grabatzen aritu direnak identifikatzen eta informatzeko eskubidea urratzen aritu direla salatu nahi dugu.

Kalean publikoki gertatzen ari dena grabatzea

4. Semearekin vis a visean nola joan den eguna oraindik ere hodei artean hantxen dabilkit garuna hilabetean behin ikusteak probokatutuzen dizuna hurbila bezain urruna sentsazioen bilduma (bis) aitan papera presondegian aspaldi nuen entzuna haurrendako attatto baita ikastolako laguna (bis).

5. Bihar gauean afalostean joango naiz telefonora gailuak pi-pi jo bitartean nerbioak datoz gora erantzutean ze lasaittua itzuli diraden proba ze poza bihotz ondora eta zirrara golkora (bis) bortz minutuak ze motzak diren zaudenen hainen gustora hasi orduko bukatutzen da telefonoko denbora (bis).

6. Larunbateko bixitetara lasaiago joaten gara lagunak eta ingurukoak datoz kabina hortara kristal batekin separatuak berrogei minutu hara segituan da akaba elkartasun parrastada (bis) Mirentxineko gidari hoiek ezin aipa gabe laga larunbatero antolatua furgonetatxo bat bada (bis).

Mozal Legea. Espero dugu ez dutela haren logika zigortzailea aplikatuko eta informatzeko eskubidea berma dezatela eskatzen dugu. Mozal Legearen ez zuela aplikatuko onartu zuten Gipuzkoako Batzar Nagusiek

7. Galdetzen duzu euskaldunen bat baden kalera joan dena otsail aldera atera zen bat betez osorik kondena hamar pausoko patio hortan pasa du mende laurdena isolamenduko pena preso politikoena (bis) gure hizkuntza eta kultura da bereizten gaituena gure herria ez onartzea dela beraien problema (bis).

8. Berrito ere hurrengo astean eramanen naute eta Madrilgo epaile famatuenei erakustera kopeta furgona baten ongi lotua dena poliziz beteta hainbat oihu ta errieta eskubide zapalketa (bis) zirrikitutik kalea ikusiz preso baten gogoeta zure hegalk baldin banitu gaitutako nun pareta (bis)

9. Hau paradoxa ni kaiolan ta zu aldiz kalean zera horrexegatik gaurko honetan eginen dizut galdera niregaitan egun batzutan egin dezakezu hega Pirineo magalera hantxe bertan dago Bera (bis) bide luzean topatu arren zuk hamaika gorabehera bertso-xorta hau eramanzazu Berako Kultur Etxera (bis)

eraso horren harira. Mozal Legearen espiritua ez aplikatzeko eskatzen dugu. Erasoak eraso, Argiak bere irakurle eta komunitatearentzat garran-tzitsu diren gaien berri ematen jarraituko du. Kazetaritza ez da delitua.

**Bota bertsoa**

Joseba ARANIBAR ALMANDOZ (Bera, Herrera de la Manchako presondegitik) • Doinua: Leiho ertzetik Baztan-Bidasoko XXIX. Bertsopaper lehiaketan aipamen berezia (18 urtetik goiti)

Barrote artetik txoriari

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Gaztelera ulertzen hasi nintzenean, euskara ez ulertzea ezin nuen jasan. Pentsa, kuadrillan euskaraz ari dira, normalean egiten duten bezala, eta niregatik euskara alboratu behar izatea oso gaizki iruditzen zitzaidan. (...) Hemen bizi behar baduzu, euskara ikasi behar duzu. Nik ez nuen egin besteen onarpena lortzeko, esaten zidatena ulertu nahi nuen nik».

Xanta SOUSA
Lesakako herri kirolaria
BERRIA 2016.06.12

«Goizuetak ez dauka zorrik, herri gutxi dira zorrik gabekoak, eta harrotasunez esaten dut. Gainera, badaukagu aurreko urteetatik aurreztutako diru bat, 1.700.000 euro».

«Goizuetaren bizirau-penerako edo behintzat ondo eramateko, garrantzitsua da Nafarroa mailan ematen ari den eztabaida bat, administrazio lokalaren ingurukoa».

Unai LOIARTE
Goizuetako alkatea
KRONIKA 2016.06.18

11 galdera labur

Nor da Amaia Iturriria?

Azpilkuetan bizi den 21 urteko neska.

Betaurreko moreak jantzita zer ikusten da?

Errealitatea ez dela zertan ezagutzen den bezala onartu behar. Betaurreko moreak onartezinak diren egoerak aldatzeko indar eta erramintak eskaintzen dizkigute.

Esatera zahar bat?

Eguzkia eskuetan eta ilargia nahi.

Zer da tentagarriagoa, klasetik piper egitea edo gozotegiko gozoak jatea?

Dudarik gabe gozoak jatea, beti izaten baita txokolate zati bat jateko gogoia.

Zapi gorria prest duzu?

Bai doike!

Zer falta dute Azpilkuetako bestek?

Herrikoa ez den jendea ere agertzea eta gurekin bestaz gozatzea.

Eta zer dute soberan?

Herriko otorduetan gizonak eta emakumeak bereizita jartzea.

Zein da Azpilkuetako besten bereizgarria?

Herri ttikietan sortzen den giro goxoa.

Azpilkuetako gustuko txoko bat?

Ezkizeko kaskoa, eguraldi onarekin itzuli ederra egiteko lekua da.

Eguna edo gaua?

Momentuaren arabera. Asteburuetan gaua gustuko dut, aste tarte berriz, eguna aprobetxatzea nahiago.

Ametz bat...

Euskaldunok barrenean daramagun 200 urteko apaiza behingoa akaba-tzea.



Amaia ITURRIRIA → Azpilkuetako gaztea

saroba
gozotegia okindegia

p^o de eztegara 25 bajo
31780 bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

ANTZUZELAI
S.L.

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, erlaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiaik
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA

Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

MARITX

Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak
T. (0034) 636 617 450

zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

zalain

Goieko INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTUAK

DESINFEKZIOAK • DESINSEKTAZIOAK • DESARRATOITZEAK
Zure inguruu klase guzietako insetuz (xomorro, zinurre, armiarma, kuku...)
eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu daitez Termita eta Pipien tratamenduak

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

ALZURI
ELEKTRIZITATEA ETA ETXETRESNAK
Bittiria, 33 31770 LESAKA T. 948627531 • 680562629

LEIZA OSTATUA
"Antoiu"
Tel. 948 637 087
Egunero goizeko 6:00etatik irekia.

BOKATAK
RAZIOAK
EGUNEKO MENUAK
MENU BEREZIAK ENKARGUZ
PLATER KONBINATUAK

Burbuila
ile-garandegia eta estetika

T. 948 638 004 • Bittiria, 36 behea. LESAKA

ASTORE Loreak MENDIAN TERNUA Deigual.

Ongi pasa Sanferminetan!

bixkiak
KIROL ETA MODAKO
arropa denda
Arretxea, 7 B2 • LESAKA • 948 638 110

LESAKAKO BESTAK

UDALAREN EGITARAUA

UZTAILAK 6, asteazkena

12:00 Herriko-Etxetik botako den altxaferoaren ezta dandak emanen die hasiera aurtengo besteiei. Ordu berean txistulariek, soinulariek, trikitilariak, Elutxa Txarangak eta haur ttikien danborradak girotuko dizkigute herriko kaleak euren soinu alaiekin. **17:30** Frontoian, Tantirumairu Euskal Folklore Taldearen erakustaldia. **20:00** Peña guzien ordezkariak altxaferoa bota ondoren danborrada nagusia abiatuko da, Erraldoi eta Buruhandi, danbor-jole eta soinulari eta Lesakako Bandarekin batera, herri osoari itzulida emanen diote. **Gaeuz** dantzaldia Triki ta ke taldearekin.



UZTAILAK 7, ortzeguna

08:30 Ezpata-dantzarien meza ixila. Joan-etorria Txistulari bandaren laguntza egingen da. **10:30** Udalbatza bertze agintariekin, Ezpata-dantzari eta Musika Bandarekin batera, herriko ikurrak aintzinean dituztela, abiatuko dira Herriko etxetik elizara, Meza Nagusira. Bertan, Lesakako Abesbatzak parte hartuko du. Meza ondotik, Fermin Zaindaria irudiarekin herri guzitik prozesioa. Onin errekarren bi aldeetan Zubigainekoa. Bandera-arbola doinuari dagokion ikurrin-agurra zubi gainean. Agur edo dantza bera Plaza Zaharrean, ikurra Herriko-etxera igan aitzineatik. **18:00** Bezperak; Elizarako eta Elizatik joan-etorria Meza Nagusira bezala egingen da. Bezperetan, Lesakako Abesbatzak kantatuko du. **Ondotik** Ezpata-dantzariak mutil-dantza, neska-dantza, aurrekua eta jotak dantzatuko dituzte Plaza Zaharrean. **19:30** Plaza Zaharrean, bertso jaialdia, Arrano Elkarteak antolatuta. (Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi, Julio Soto eta Iban Garro. Aurkezlea: Eneko Fernandez. Gaijartzailea: Lesakako Bertso Eskola. **Gaeuz** dantzaldia Gabenara taldearekin.



UZTAILAK 8, ortziralea

09:00 Peñen gosaria. **10:00** Peñen danborrada, Elutxa Txarangarekin. **11:00** Haurrentzako entzierroa Ote kalea (Igantziko bidea)-Plaza Zaharra. **12:00** Betizuak, Plaza Zaharrean Elutxa Txarangarekin. **16:30** Plaza Zaharrean haurrentzako ikuskizuna. **18:00** Peñen kontzentrazioa Elutxa Txarangarekin Peñen jeitsierarako. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia Trikidantz taldearekin Plaza Zaharrean.



UZTAILAK 9, larunbata

10:30 Haur eta gurasoen danborrada Elutxa Txarangak lagunduta. **Goizez eta arratsaldez** Haurrendako ikuskizunak Eltzeta plazan. **12:00** Betizuak, Plaza Zaharrean, Elutxa Txarangarekin. **18:00** Frontoian, esku-pilota partidu profesionalak. **20:00** Herriko taldeen emanaldia Plaza Zaharrean **Arratsaldez** Elutxa Txarangak kalez kale **Arratsaldez eta gauez** Dantzadi taldearen emanaldia Plaza Zaharrean. Atsedendian Herriko taldeak arituko dira.



UZTAILAK 10, igandea

11:30 Andra Mari Zahar Etxeko lorategian Nafarroako jotak Voces navarras taldearen eskutik. San Fermin Jubilatu eta Pentsionisten Elkarteak antolatuta. **11:30** Gorriti eta bere animaliak Bittiriako Plazan. **12:00** Betizuak, Plaza Zaharrean, Elutxa Txarangarekin. **16:30** Txorotxaranga haurrendako ikuskizuna Plaza Zaharrean. **18:00** Nafarroako jotak Voces navarras taldearen eskutik. San Fermin Jubilatu eta Pentsionisten Elkarteak antolatuta. **20:00** Txakaindik jeitsiera, Zortziko doinuarekin **Arratsaldez eta gauez** Irtzar taldearen emanaldia Plaza Zaharrean. **03:30** Jai-hilak Elutxa Txarangarekin.



GORA SANFERMINAK!!!

bortzirudi
inprenta

kopistegia, rotulazioa • serigrafia, tanpografia, papertegia

948 631 521
bortzirudi@bortzirudi.eu

ONGI PASA BESTAK!

D

◀◀◀HIRUKIDE▶▶▶

Eguzki panelak ▶▶ Iturgintza
Industria mantenimendua ◀
Aire egokitua ◀

T./F. 948 625 395
Alkaiaga ind. • Alasta, 4-6 Behea • 31770 LESAKA

ITURBENA
ONGI PASA BESTAK
kafetegia

Koskontako bidea 5, behea - LESAKA

udana

Ongi pasa Sanferminak!

Alkaiaga Ind. - 31789 LESAKA
Tel. 948 631 536 Faxe. 948 631 550
E-posta. bacalao@salazonesudana.com
www.salazonesudana.com



ARRANO
ostatua
Albistur 13, Lesaka. 948 627 597

KROKETAK, PINTXOAK, BOKATAK,
ENTSALADAK, PLATER KONBINATUAK
ta giro bikaina

PRESO TA IHESLARIAK ETXERA!



APITTU
ALUMINIO LANAK

Aluminiozko Leihoak, Kontraleihoak,
Ateak, Portxeo itxidurak eta barandilak

GORA SAN FERMIN!

T./F. 948 638 297 | M. 626 312 326
Otsango auzoa - 12.pabilioia | 31770 Lesaka



GORA SANFERMIN!!!!
Besta zoriontsuak
oppa elizkizuneguz

BAR FRONTÓN

Plaza berri n°38
948 627 518
31770 LESAKA



SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTZOIAK- ETXETRESNAK

BORTZIRI
UNSION ANAIK

Ongi pasa bestak!

Erakusketa: **Bereau Etxea** LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net



ONGI PASA BESTAK

Irene
ileapaindegia

610 256 557 · 948 638 186
LESAKA



GAR BILEKU
LAVANDERIA

bestak ongi pasatu

ALFONBRAK, LARRUA ANTEA...
DENETARIK ORO HAR GARBITZEN DUGU

Plaza Berria 8 LESAKA
T. 948 637 438



AROZTEGIA
MAKINA ERREMINTA
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK

Barandak, balkoiak, atekak,
hesiak, forja artistikoa, ...

T./F. 948 638 150
M. 646 774 117

www.talleresjoisa.com ONGI PASA BESTAK!
Otsango Ind. • 31770 LESAKA • talleresjoisa@hotmail.com

GOZOTEGIA
HAIZEA
BOLLERIA
KAFETEGIA

Ongi pasa bestak!



T. 948 63 80 36
Plaza Zaharra, 7
LESAKA



KOXKONTA
JATETXEA | LESAKA

1. MENUA

35€
BEZ Barne

- URDAIAZPIKO IBERIKOIA
- ZAINZURIAK IZOKIN KEZTATU ETA MANGO OZPI-OLIOAREKIN
- BAKAILAOZ BETETAKO PIPERRAK TOMATE-KREMA ETA BARATXURI MOUSSOLINA SUABEAREKIN
- PERRETXIKO ETA ONDDO RISOTTOA
- LEGATZA ITSASKIZ BETETA EDO ENTREKOTA GARNIZIOAREKIN
- POSTREA TARTA IZOZKIAREKIN ETA KAFAA
- EDARIAK: ARDO BELTZ ONDUA, NAFARROAKO ARDO GORRIA, RUEDA ARDO ZURIA

2. MENUA

45€
BEZ Barne

- URDAIAZPIKO IBERIKOIA TXINGARRETAN ERRETAKO OGI TXIGORTU, OLIBA OLIO ETA TOMATE NATURALAREKIN
- FOIE SAGAR-KONPOTA ETA ALMENDRA ETA GOZOKI KROKANTEAREKIN
- AJOARRIERO-KREPEAK OTARRAINXKEKIN PIKILLO-KREMAREN GAINEAN
- URDAIAZPIKO IBERIKOIA ETA PARMAKO GAZTAZ BETETAKO ZAINZURI GRATINATUAK
- LIMOI-SORBETEA CAVAREKIN
- ZAPOA LABEAN ERRETA ONDDO, PERRETXIKO ETA PANADERA PATATA GARNIZIOAREKIN. EDO ENTREKOTA PLANTXAN IDIAZABAL-KREMAREKIN
- POSTREA TARTA IZOZKIAREKIN, KAFAA ETA LIKOREAK
- EDARIAK: ARDO BELTZ ONDUA, NAFARROAKO ARDO GORRIA EDO LAMBRUSCO ETA RUEDA ARDO ZURIA.

BESTETAKO MENUAK
UZTAILAK 6 (GAUA) UZTAILAK 7
T. 948 627 519

TXOSNEN EGITARAUA

UZTAILAK 6, asteazkena

10:00 gosaria eta txosnen irekiera. **13:00** Preso eta iheslariak sanferminetara kalejira. **Gauez**, gau jokoak.

UZTAILAK 7, ortzeguna

20:30 Buruztanka konpartsaren kalejira.

22:30 Sanfermin Fest: B.I.P., Marmoka eta Dama taldeen kontzertuak.

UZTAILAK 8, ortziralea

Egun osoan Peñen eguna.

UZTAILAK 9, larunbata

20:00 Hamaika borroka, *besta bakarra* aldarrikapen elektro-poteoa.

00:00 DJ gaua Tirry&Terirekin.

UZTAILAK 10, igandea

22:00 Umore gaua Oskar Estangarekin. **Ondotik** playback lehiaketa.



ONGI PASA INAUTERIAK!

Zarandia 9 • Tel/ Fax. 948 627 584 • LESAKA
M. 626 500 459 • info@estherateak.com

ONGI PASA SAN FERMINAK!

NIK HERRI BIZI BAT NAHI DUT, ZUK?

kattagorria

Beheko plaza, 10 - 31770 Lesaka
Tel. 948 627 514 - www.kattagorria.com

asesoria
Emaitza
AHOLKULARITZA
Kontable · Fiskala · Laborala

ongi pasa
SAN FERMIN
bestak

Eltzeta, 20 behea | 31770 LESAKA
T. 948 638 077 | www.emaitza.eu
amaia@emaitza.eu

ONGI PASA BESTAK!

OPARIAK • BITXIAK
ENMARKAZIOAK

Albistur 39 LESAKA
T. 948 627 542

Etorri Lesakako instalazioa, eta gozatu dauden aukerekin!

ONGI PASA SAN FERMINAK!!

LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA

T. 948 637 400 • kiroldegia@lesaka.eus
www.lesakakoudalkiroldegia.com

ONGI PASA BESTAK

ARROPA ETA OSAGARRI PERTSONALIZATUAK
Laneko arropa, kirol arropa, kamisetak, txapelak, painuluak, bordatuak...

Nagusia, 1 · DONEZTEBE · T. 948 451 571 · 636 885 190
male-reka@male-reka.com Male-Reka

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa
www.facebook.com/ttapi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

JAVIER ALZUGARAI S.L.U
Hondeaketa eta Garraio Lanak

ONGI PASA BESTAK!

Nabaz auzoa | Guillen-borda | 31770 Lesaka | Nafarroa
T. 646 986 448 | F. 948 637 390
excavacionesjavieralzugarai@gmail.com

Dia  Sanferminetan
otordu goxoak
prestatzeko
LESAKA **LESAKAKO DIA**

Plaza Berria, 10 • 948 637 335

 **TALLERES FRAIN**
LESAKA • Tel.: 948 637 525

Ongi pasa bestak!

 **INDARRI**
HOTZ KOMERTZIALA
ETA INDUSTRIALA *Ongi pasa
bestak!*

T. 639 103 305

IÑAKI JANARIDENDA
- ONGI PASA BESTAK -

Arretxea. 12 • LESAKA • 948 638 287

IRU BIDE **GORA SAN FERMIN!!!**
Erretegia • Asador

Biurrana, 3
LESAKA
Tel:
948 637 127

MIKEL UBIRIA
eskabazioak
garraioak
ONGI PASA BESTAK!

Biurrana 8 • 31770 Lesaka
☎ 948.637.302 ☎ 619.716.322 ☎ 608.779.641
info@excavacionesubiria.com

ongi pasa bestak!

 **IZARRA
OKINDEGIA**

PLAZA ZAHARRA 12~13
31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855

LESAKAKO BESTAK

Alfonso OBESO

«Metxari sua nik emanen diot baina boluntario guztiak ordezkatzan ditu su horrek»



Euren denbora jartzen dute bertzeen eskura, trukean irabazi ekonomikorik jaso gabe. Laguntasuna, laguntza... eskaintzen dute eta hala, bertzeak bertze, paseorako lagun, irakasle edota auto gidari bihurtzen dira. Bortzirietan, Elkarrizan taldean biltzen dira boluntarioak, 42 lagun eta horietatik 11 lesakarrak dira. Muxutruk egiten duten lana eskertzeko, txupinazoa botatzeko ardura izanen dute aurten eta Alfonso Obeso boluntarioak izanen du horren ardura.

Sortez Erreterikoa bada ere, 40 urte daramazki Lesakan bizitzen Obesok. Fabrikari lanean aritu ondotik, duela hamar urte hartu zuen erretiroa, baina bertzei laguntzeko premia hori aitzinetik datorkio. «Oraindik Inmaculada erresidentzia zegoenean, 1997 urtean beharbada, hurbildu nahi nuen bixitatza, baina erre-

«Eskaintzen dizuten irribarreak urrea balio du. Pasiatzeko izaten duten gogo... Zahar etxetik atera eta herrian integratuak sentiarazi behar ditugu».

paroa ematen zidan, ez nekien nola jokatu eta Don Maximo erretoareari eskatu nion laguntzeko. Beraiekin egoten hasi nintzen, laguntza eskaintzen, baina zerbait gehiago egin behar zela ikusi nuen». Donostiako, Baztango eta Berako boluntario taldeekin jarri zen harremanetan informazio eske «ordurako Beran bazen boluntario talde bat, Elkarrizan eta elkarlanean hasi ginen. Beran bazen jende aunitz eta Lesakan hiru lagun bertzerik ez eta ezin





genuen bakoitzak bere aldetik ibili». Geroztik «familia handitzen» joan da eta gaur egun talde polita dutela ere azpimarratu du Obesok.

Elkarrizaneko boluntarioentzat ere besta

«Polita izanen litzateke karrikabueltak zahar etxera ailegatzea, buruhaundiak eta erraldoiak hurbiltzea... edo sartu-ateri bat egitea».

egunak dira, baina Zahar Etxean besta egiten duten egunean adinekoekin egoten dira. «Urteren batean, joteroak Zahar Etxera ez ziren joan eta plazara eraman genituen musika aditzera». Tradizio aunitz dituen herria da Lesaka eta horietako bat, besta plaza inguruan egitea dela dio Elkarrizaneko boluntarioak eta zaila izaten da besta giro hori Zahar Etxeraino ekartzea. «Interesgarria izanen litzateke txip-a aldatzen joatea, gazteek batez ere. Bertsolariak etortzen dira, joteroak... Baina polita izanen litzateke karrikabueltak ailegatzea, buruhaundiak eta erraldoiak hurbiltzea... edo sartu-ateri bat egitea. Bestarako tartea ere hartzen du Alfonsok eta bereziki San Fermin eguna gusztatzen zaio: «Abesbatzan ere parte hartzen

dut, eta meza eta Bezperako Salbea kantatzeak niri betetzen nau... Bertze egunetarako xahar xamarra ikusten dut nere burua, baina Txakaingo jautsiera ere aunitz gustatzen zait, nahiz eta dantzarako baldarra izan. Zergatik ez ote dudan ikasi galdetzen diot nere buruari». Baina bestak aunitz segitzen ditu eta argazki eta bideo laburrekin erreportaje laburrak egin eta gero urtean zehar erakusten ditu Zahar Etxean: «Hor bai faltan somatzen dut Ttipi-Ttapa Telebista, lehen Sanferminetako DVDa erosi eta hori ibiltzen zen urte osoan bueltaka, zenbat aldiz errepikatu ote dugun! Lehen telebistak egiten zuen lan hori nik egiten dut, gustora gainera! Beraien buruak ikusten dituzte eta aunitz gozatzen dute!».

Txupinazoa botatzeko ardura «urduritasun handiz» hartu badu ere, ez omen zuen zalantzarik izan baiezkoa ematerako orduan, «ez neregatik, ordezkatzeko duenagatik baizik. Herri honetan lan handia egiten da boluntario moduan: Elkarrizanek, suhiltzaileak, parrokiako katekistak, kultur eta kirol taldeetan ari direnak... Nik meixari sua emanen diot, baina nere gibelean daude boluntario horiek, Zahar Etxeko bizilagun guztiak, etxean atera ezinik dauden pertsonak, edozein arrazoiengatik plazan egon ezin dutenak, horiek denak ordezkatzeko ditut!».

42 boluntario ari dira lanean Elkarrizan elkartean, horietatik 11 lesakarrak dira

Elkarrizan taldea, 2008an sortu zen Beran eta urte gutxiren buruan Bortzirietako Gizarte Zerbitzuek hartu zuten elkartearen kudeatzeko ardura. 2012an zabaldu zuten zerbitzua Lesakara eta gaur egun, 42 boluntario aritzen dira bertan, horietatik 11 lesakarrak. «Laguntzea, goxotasuna ematea, gizatasun kutsu hori erabiltzaileei ematea...» da helburua. Jatorrian adintu eta ezinduei zuzendua zegoen, orain profila zabaldu eta «laguntasuna eskaintzeaz gain, etorkinendako gaztelera klaseak edo zailtasunak dituzten familietako haurrei udan eskola laguntza ematen zaie, eta garraio zerbitzua ere eskeintzen da». Erronkak ere badituzte «laguntasuna etxetan eskaini eta ospitaleetako laguntza, bakarrik dauden pertsonen zuzendua». Gonbidapena ere luzatu dute «lagundu nahi dutenak ongi etorriak izanen dira».

TAXI XARUTA
XARUTA TAXIA
LESACA
Tel. 619 974 252

TRANSPORTES IRIGOYEN
ONGI PASTA BESTAK
629 592 215 · Biurrana auzoa, 1 · LESACA

TRANSTXAKAIN
TRANSTXAKAIN, S.L.
JESUS ARAMBURU ALZUGARAY
MOTA GUZTIETAKO IBILGAILUAK
EKO TXAKAIN S.L.
GAIKAKO HONDAKIN BILKETA
Gora San Fermin !
T. 669 840 198 / 948 638 052
Faxa: 948 627 578
Otsango Ind. 28 • LESACA
transtxakain@yahoo.es

SARAKUNTZAK AROBE
Obra berria
Etxebizitzaren zaharberritzea
Iggogailuen kudeaketa osoa:
· Diru-laguntzen kudeaketa
· Obra zuzendaritza
· Proiektua
ETXABEAK LESAKAN
ONGI PASTA BESTAK
639 623 473 · 649 980 394
info@sarobe.eus
Bittiria Kalea 2
www.sarobe.eus

Otxoteko
PINTURAK
ELEKTRIZITATEA



Bittiria, 18 - 31770 LESAKA
tel. 948 637 902
Juan Luis 678 993 818 - Jon 687 147 466
e-posta. otxotekopinturak@yahoo.es

Ongi pasatu Sanferminak!

NIK HERRI BIZI BAT NAHI DUT, ZUK?



Semper **autoeskola**

ESKAINTZA BEREZIAK!

Ikastaro teorikoa nahiz praktikoa euskaraz!

- INFORMATU ZAITEZ -

Eztegara pasealekua, 26 BERA
T. 948 630 298
e-posta: semperautoeskola@gmail.com
ongi pasa bestak!

Plaza Berria, 7 LESAKA
T. 948 638 299

KASINO
OSTATUA - RESTAURANTE



Besta alai eta pozgarriak izan ditzazuela!

Plaza Zaharra • LESAKA • 948 63 71 52

ongi pasa bestak!

“TELLETXEA”
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESAKA • T. 619 418 683
johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealorzaintza.com



LESAKA
2016ko SANFERMINAK

TERESA ROJO LARRALDE • “KASKABILOA”

LESAKAKO UDALAK
San Fermin zoriontsuak opa dizkizue herritar eta kanpotik etorritako guztiei



Teresa ROJO LARRALDE | Kartel irabazlearen egilea

«Gure lanean sinistuko ez bagenu, ez genuke aurkeztuko»



Teresa Rojo Larralde 21 urteko lesakarraren *Kaskabilo* lanak iragarriko ditu aurten-go Lesakako sanferminak. Kartel lehiaketara aurkeztutako lanen artean berea aukeratu baitzuen epaimahaiak. Joan den urteko San Fermin Egunean, Ezpatadantzariak Zubigainekoa dantzatu zutenean ateratako argazkia dago kartelaren gibelean. Teresa berak egindakoa. Saria «pozik» hartu duela kontatu digu, eta ez da guttiagorako, 250 euro hartu baititu. Espero ote zuen galdetuta, honela dio: «gure lanean sinistuko ez bagenu, ez genuke aurkeztuko. Irabazteko itxaropena beti izan behar dugu».

«Peñaren Eguna dut egunik gustukoena eta ekitaldien artean, Zubigainekoa. Zalantzarik gabe»

Sanferminetako kartel lehiaketara aurkeztu den lehenbiziko aldia izan da, eta estreinaldi ona egin du. Berte lehiaketa batzuetan, ordea, ibilia da: «bideo munduan, Iruñean egiten den Europako 59 lehiaketan, iaz finalista gelditu nintzen. Orain dela bi urte, Beti Gazte Elkarteko argazki lehiaketara aurkeztu nintzen eta aurten egin den Argazki Rallyan laugarren gelditu naiz». Horiexek baitira bere pasio nagusiak: argazkia eta bideoa. Bere ikasketak ere horri lotutakoak dira: «ikusentzunezko medioetan teknikaria naiz, muntaia

eta posprodukzioa ere ikasia dut eta ikusentzunezko proiektu eta ikuskizunen errealizazioari buruzko modulua egiten ari naiz Gasteizen». Asti libre duenean ere ez du urruti izaten kamara, «argazkiak ateratzea» gustatzen baitzaio, baita «argazkigintzan eta bideoan zein berrikuntza dauden ikustea ere, eta irakurtzea». Izan ere, «betitik» gustatu izan zaio mundu hau eta etorkizunean ere bide beretik segitu nahi du: «argazkigintzan gehiago sakondu nahi nuke eta argazkilaritzako modulua egitekotan nago».

«SANFERMINAK BEREZIAK DIRA»

Lesakarra izaki, ate joka ditugun sanferminak beretzat «bereziak» direla aipatu digu. Familia eta lagun artean pasatzen ditu herriko bestak eta onartu digunez, «eguneko besta gehiago gustatzen zait. Jende gehiago izaten da eta adin desberdinetako jendea. Arratsean beti betikoak izaten dira». Eta zein ote ditu egunik eta ekitaldirik gustukoena? Bada ez du zalantzarik: «Peñaren Eguna eta ekitaldi bezala, Zubigainekoa. Zalantzarik gabe». Hala ere, sanferminek badute gustatzen ez zaion zerbait ere: «kanpotik etortzen diren egiten dituzten txikizioak». Kontuak kontu, ez harritu sanferminetan Teresa kamara eskuetan ikusita. Besta egiteaz gain, argazki politen bila ere ibili nahiko baitu.

ONGI PASA BESTAK!

Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako
GASOLIOA
ETXERA
24
ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

XAGU
LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7 · LESAKA
(osasun-zentroaren parean)
BESTETAKO ORDUTEGIA
08:30-13:00

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARAK, ALDIZKARIAK

ZOANSA

SEAT Audi VW HYUNDAI

MARKA GUZTIEN KONPONKETA
MEKANIKA | ELEKTRIZITATEA | TXAPA | PINTURA
KOTXEEN SALMENTA
BERRIAK | BIGARREN ESKUKOAK | OKASIOKOAK | KMO

Tel.: 948 62 55 55 • Fax: 948 62 55 05
Banarta, 2 • Alkaiaga Ind. • 31789 LESAKA • zoansa@zoansa.com

oh
HOTELchurrut

Churrut jatetxeak **besta zoriontsuak opa dizkizue** eta urte osoko gure menuak ezagutzera gonbidatzen zaituzte:

Eguneko menua astelehenetik ostiral eguerdira arte
Asteburuko menuak (25,00 €tik aurrera)
Taldeentzako menuak
Jaunartze, ezkontza... menuak
Menu pertsonalizatuak eta neurri egokituak
Sasoiko produktuekin osatutako karta

Foruen plaza | BERA | T. 948625540 | 948625542
www.hotelchurrut.com

GIZARTEA → GURE ESKU DAGO EKIMENAREN ESKUTIK

Herri galdeketak eginen dituzte 2017an Bortzirietan eta Leitza-Urumealdean

‘Nafarroan hautetsontziak erabiltzen hasteko unea da’ izenburupean agerraldia egin dute

TTIPI-TTAPA

“Nafarroan hautetsontziak erabiltzen hasteko unea da” izenburupean, prentsa agerraldia egin zuen ekainaren 11n Nafarroako Gure esku dagok Iruñeko Zumalakarregi erai-kinoko atarian.

Nafarroako 16 herri- galdeketak iragarri dituzte 2017rako, tartean Bortzirietako bortzek: Lesaka, Bera, Etxalar, Legantzi eta Arantzak. Lei-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ekainaren 11n Leitzaan egin zuten agerraldian, Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako herritarrek.

tza-Urumealdean ere, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranon eginen dituzte. Eskualdeko ez ga- in galdeketak eginen dituzten gainerako herri- ak Altsasu, Lakuntza, Irurtzun, Larraun, Le- kunberri eta Arantzak. Be- telu izanen dira.

Arkaitz Zapatak eta Larraitz Amadozek ho- nako adierazpena irat- kurri zuten, «Orain bi ur- te Sarasate pasea- lekuko Foruen Monu- mentuan zuen ertz bat Gure Esku Dago esa- nez osatu zen 123 kilo- metroko irribarre erral-

doi hark. Iaz, herrialde osoan ehundutako ha- maika koloretako oiha- lek in eraiki genuen hau- tetsontzia zezen plaza- n eta iragarri genuen, hau- tetsontzietan begira jarri ginela. Gaur, hautets- ontzi horiek erabiltzen has- tera gatzela iragar-

tzera gatzela. Gaur urrats berri bat emateko erron- ka jarri dugu 16 herri- tan, hurrengo hilabete- tan herri eta eremu ge- hiagotara hedatu asmo dugun bide berri baten adierazgarri, herri ho- nek bere etorkizunaz erabaki dezan».

GIZARTEA → EKAINAREN 12AN

50 aldiz baino gehiago odola eman dutenak saritu ditu ADONAK

Elvira Garcia arizkundarrak eta Jose Juan Larralde leitzarrak ehun odol-emate baino gehiago egin dituzte

TTIPI-TTAPA

ADONA Nafarroako Odol Emaileen Elkarte- ak 50, 100 edo 150 odol emate egin dituzten 250 bat lagun saritu zituen ekainaren 12an, Iruñeko Baluartean egindako ekitaldian. Joan den ur- tean, 25.659 odol-ema- te egin ziren Nafarroan, 2014an baino %6,5 ge- hiago.

Baluarteko ekitaldi- an urrezko 204 intsignia eman ziren (50 odol- emate baino gehiago egin dutenei). Saridu- nen artean eskualdeko 13 zeuden: Elizondoko Luis Arregi Etxepare, Pedro José Arteta Be- rasategi, Xabier Irureta Rodenas, Ramon Liza- soain Adansa, Pedro Mari Maia Martikorena,



UTZITAKO ARGAZKIA

250 odol emate saritu zituzten Iruñeko Baluartean.

Miguel Nuñez Polo, Mi- lagros Organbide Goñi eta Celestino Rekarte Urrutia; Elgorriagako Lu- cio Irisarri Arrijuria; Le- karozko Pedro Maria Oskariz Bertiz; Berako Saturnino Pikabea El- tzaurdia eta Maria Je- sus Yanci Amorena eta Gazteluko Jose Miguel Sarratea Oteiza.

Urrezko domina bi- koitza (100 odol-emate baino gehiago) 41 lagu- nek jaso zuten, tartean Arizkongo Elvira Garcia Artiedak eta Leitzako Jo- se Juan Larralde Cere- zalesek.

Nafarroako ospitale- tan, egunero 80-100 odol transfusio egiten dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Joseba Aranibar, Espidobaitara ailegatzekoan.

GIZARTEA → EKAINAREN 9AN

Epaiketaren zain libre utzi dute Joseba Aranibar

Herreran zegoen preso

TTIPI-TTAPA

2007ko uztailearen 2an atxilotu zuten Joseba Aranibar herritarra Donibane Garazin eta zazpi urte geroago Espainiaratu egin zuten. Herrera espetxean zegoen preso, baina ekainaren 9an erabaki zuten Espainiako Auzitegi Nazionalak behin behineko askatasuna ematea eta libre gelditu da epaiketa egin arte. Espetxetik atera eta gauerdialdera ailegatu zen. Senide eta lagunak ongi-etorria egin zioten Espidobaitan.

Bera-Lesaka ur hornidura

Lesaka-Bera Goi-presioko ur hornidura konponbide bateratuko

proiektuko lehen faseko obra uda ondotik hasteko asmoa dute. Proiektua onetsi du Udalak eta proiektuak ukitzen dituen ondasun eta eskubideen zerrenda ere ikusgai jarri du. Proiektuaren inguruko informazioa eman zuen udalak ekainaren 21ean Beralandetan.

Bertze aldetik, Zalaingo saneamenduari arazo moldatzeko lanak egiten ari da Nilsa. Aspirazio bidez eramanen dire ur zikinak araztegiara eta bertan tratatu. Zalain auzokoak eta poligonoko enpresetakoak bilduko dira.

Zalaingo bizilagunak soinuarekin kexu

N-121A errepideko trafikoak Zalain auzoa zeharkatzerakoan sortzen duen zarata dela



UTZITAKO ARGAZKIA


Kataluniako eta Gure Txokoako dantzariak Altzaten dantzan

Giro ederrean joan dira aurten ere Altzateko bestak. Kataluniako dantza tradizionalak berreskuratzen lan handia egiten ari den L'esbart Dansaire de Granollers dantza taldea Gure Txokoakoen batera aritu zen eta udazkenean Gure txokoa dantza taldea Kataluniara joanen da dantzatzera.



Ba al zenekien

Herriarteko pilota txapelketako finalerdietaraino ailegatu dela aurten Bera. Galdu arren, finalerdietako zortzi pilotariak herrikoak ziren.



ARGAZKIA: ANDREA GOURAUD ETA NEREA FAGOAGA

Bestetako programaren azal lehiaketa

Andrea Gouraud Altzugarai eta Nerea Fagoaga Pajares herritarrek elkarlanean egindako lana izanen da aurten Berako bestetako programaren azalean agertuko dena. Lehiaketara hamar lan aurkeztu ziren eta horien artean, beratarren marrazki koloretua hautatu zuen epaimahaiak. 400 euroko saria jasoko dute. Kontrazalerako, berriz, Iruñeko Yaizzi G-ren lana aukeratu da.

xirgil
jaione goya
ileapaindegi mistoa
Alzate 1, 31780 BERA
948 631 462

ERREKALDE
PLATER KONBINATUAK OSTAJUA
PINTXOAK
BOKATAK
TFNOA: 948 630 259 BERA

LESAKA

KULTURA → UZTAILAREN 1EAN

Korrontzi dantza taldearekin bat egingen du musika bandak kontzertuan

Eguraldiak lagunduko balu saio bakarra egingen litzake parkinean eta euriarekin bi saio frontoian

Aitor AROTZENA

Azken urteetako ohi-turari utsiz, Lesakako Musika Bandak Sanferminen aitzineko asteburuan emanaldi berezia antolatu du. Aurtengoa uztailaren 1ean izanen da, Korrontzi euskal dantza taldearekin batera. Eguraldiak lagunduko balu saio bakarra izanen litzake ortziralean 22:00etan frontoiko aparkalekuan eta euria egingen balu bi saio, 19.30ean eta 22:30ean frontoia barrenean. Legarra, Telletxea eta Xagun eta Berako Xugan 8 eurotan salgai daude 5 urtetik goitiko-

endako sarrerak. Kontzertua sustatzeko Musika bandako Facebook-ean bi sarrera bikoitz zozketatuko dituzte, bertan argitaratutako bideoak elkarbanatzen dituztenen artean.

Bidasoko Trenaren mendeurreneko erakusketa

Ekainaren 25etik uztailaren 31ra zabalik dago Harriondoa Kultur Etxean *Tren Txikitoren Mendeurrenaren erakusketa (1916-2016)*. Asteartetik ortziralerara 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara eta larunbat eta igandetan 10:00etatik 14:00etara ikus daiteke. Sanferminetan eta astelehenetan itxia egonen da. Cederna Galarur eta Uraren Bailarak erakundeak antolatu dute, Euskotren eta Nafarroako Gobernua-ren laguntzarekin.



Ba al zenekien

Arkupe pilota eskolaren jaialdia uztailaren 2an, larunbatean 16:30ean hasiko dela frontoian



ARGAZKIA: MIKEL HUALDE

Inoiz baino mendizale gehiago herriko Mendi Itzulian

Lesakako Mendi Itzulia hamahirugarren urtez burutu du Beti Gazte elkarteak eta inoiz baino mendizale gehiago bildu ditu ekainaren 12an. 416 mendizalek, eguraldi ederra aprobetxatu zuten eta aukeran emandako bi ibilbideetako bat 23 kilometrokoa laburrena eta 32 kilometrokoa luzea) egin zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Txoko-Txiki lehiaketako saridunak

Tanturumairu ikastolak antolatutako XXXIII. Txoko-Txiki lehiaketako sari bana-keta egin zen ekainaren 10ean. Ipuin lehiaketan hauek izan ziren irabazleak mailaz maila: Maddi Hoyos Eguzkiagirre, Saioa Orbegozo Arzuaga, Ibon Ruiz Sarasola, Lexuri Arotzena Portu, Ainhize Garro Lasherak eta Irain eskolako Jontxu Urrosolo Elgorriaga (aipamena Maddi Igoa Apezetxearentzat). Ilustrazio lehiaketan, Eñaut Arburua Portu, Peru Urra Yécora, Onintze Iparragirre Iri-goien, Ekiñe Salgado Solo, Markel Erkizia Conde, eta Naroa Garbisu Etxabide izan ziren saridunak.

IRU BIDE
Erretegia · Asador

Burrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

TAXI XARUTA TAXIA

Besta egin lasai eta zuek nahi duzuen eramanen zaituztet etxera 24 orduko zerbitzua

LESAKA
Tel. 619 974 252

BEKO

LOREAK ETA LANDAREAK

Frain Auzoa · LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

Manterola
Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA

Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa

629 449 602

OSPAKIZUNAK → ABUZTUAREN 21ERA ARTE

Udal igerilekuetan atepak ireki dituzte bertze urte batez

Udaleku irekiak, berriz, uztailaren 4tik 29ra eginen dituzte

Irune ELIZAGOIEN

Bertze urte batez udal igerilekuak atepak zabaldu ditu. Ekainaren 25etik abuztuaren 21a arte egonen dira zabalik.

Aurten sorosle lanetan Alix Gereka eta Aingeru Olabe arituko dira eta igerilekuen kudeaketa lanetan berriz, (sarrerera, ostatua...) Aiora Danboriena eta Beñat Iparragirre.

Udaleku irekiak

Etxalarren udaleku irekiak uztailaren 4tik

29ra eginen dira eskola zaharrean, astelehenerik ortziralera goizez, 10:00etatik 13:00etara. Lehengo urtean bezala, aurten ere haurrek aukera izan dute hama-bortzaldika izena emateko. Lehen hamabortzaldirako 12 haur apuntatu dira, eta bigarrenarako 17.

Begiraleak Maialen lantzi eta Aiora Danboriena izanen dira. Ederki pasako dute uztaileko hilabetea, txangoak, antzerkiak, jokoak eta bertze hainbat ekitaldi eginez.

Uztaileko mendi irteerak

Larraburua elkarteak antolatuta, hauek izanen dira Zanpingorri mendi



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Udal igerilekuak ekainaren 25ean ireki zituzten eta abuztuaren 21era bitarte egonen dira zabalik.

taldeak uztailean eginen dituen mendi irteerak:

- Uztailak 3 Bidandiz. 08:00etan
- Uztailak 10 Bera

(postas, Ibardin) 08:00etan.

- Uztailak 17 Baztandarren Biltzarra 7:30ean.
- Uztailak 24 Irati 07:00etan.

- Uztailak 31 Denboraldi bukaerako ibilaldia.

Irteera guztiak herriko plazatik abiatuko dira aipatutako orduan.




ARGAZKIA. REBEKA ARANZADI

Haurraren Eguna

Aurreikusitako ekitaldi guztiak betez, giro ederrean joan zen Haurraren eguna. Ekainaren 19 igandean XXVIII. Ipuin topaketa ospatu zen eta jende andan hurbildu zen plazara eskolako haurreko irakurri zituzten ipuinak entzutera. Eguerdiko bazkaria ere arrakastatsua izan zen eta arratsaldeko kontu eta kantu ikuskizuna eta berenduarekin bukaera bikaina eman zioten eskolako gaztetxoek beren egunari.


Ba al zenekien

Itsaso Elizagoienek Euskal Herriko trikitixa elkarteak urtero burutzen duen "Geure Kolkotik" proiektuan parte hartu duela. 3 pieza berri grabatu ditu Irune Elizagoien, Mattin Arbelaitz eta Egoitz Telletxea lagun dituela. Diskoa urria alderako entzungai izanen da.

 **USOA**
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214
ETXALAR

- Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongarriak • Burdin tresnak
- Insektizidak • Edariak • Haziak

KALEFAKZIOA eta IBILGAILUENDAKO GASOLIO MERKEENA

 **NEKAZARITZA EKOLOGIKOA ENEK**
NEKAZARITZA IBILGAILUENDAKOA
NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
Inskripzio Zenbakia 1435

ETXEZ ETXEKO BANAKETA

 **trento**
clínica dental

Trento, 8 · DONOSTIA | T. 943 316 944
info@dentaltrento.es www.clinicatrento.com

 **LABEZAR**
Tel: 948 631 076 · BERA

ARANTZA

GIZARTEA → GOBERNUAK %100EAN FINANTZATUKO DU

Eskola haunditzen hasiko dira udan

Patioan gela berria eta idorpea eginen dituzte

Nerea ALTZURI

Jakina denez, eskola tiki gelditzen ari da. Joan den abenduan, eskola haunditzeko eskaera egin zuen Udalak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza departamentuan eta Parlamentuan eta eskaerak erantzuna jaso du.

Lanak uda honetan hasiko dituzte eta pixkanaka eginen dituzte. Patioan, orain frontoi tiki dagoen tokian, gela berria eginen dute eta oraingo patioan idorpe bat eginen dute frontoia harat mugituz. Lan hauek %100ean Nafarroako Gobernuak ordainduko ditu.

AIO HUNKIGARRIA

41 urte irakaskuntzan... Badazerbait. Herriko haur aunitzen lehenbiziko andereñoa izan da Petriseneko Juanita Larralde Ibarrola. 1975ean hasi zen irakaskuntzan eta ikasturte honetan erretiroa hartu du. Aunitzentzat oraindik andereño da, lehenbiziko andereño. Hasierako urteak berekin egin dituzte hainbat haurrek, ikastolan hasieran eta eskolan gero.

Omenaldi hunkigarria jaso zuen Juanitak ekainaren 9an. Eskolako gimnasioan bildu ziren denak, bere etxeokak barne. Zapela, lore sorta eta argazki bilduma oparitu zizkioten. Bertso ederrak kantatu ondotik, Aitziber eta Gaizka, bere alabak eta semeak panderoa eta akordeoia hartu eta gutzia girotu zuten.



ARGAZKIA: ARANTZAKO ESKOLA

Goiko argazkian eskolako irakasleak, tartean Juanita andereñoa. Beheitiko argazkia eskolako ikasleak *Ura da gu gara* antzezlanaren Lesakan egin zutenekoia da.

Mila esker andereño!

IKASTURTE AKABAILA

Ikasturte akaberarekin batera, hainbat ekimen egin dituzte eskolan. Ekainaren 16an, Lesakako Kultur Etxean izandako Antzerki Topaketan parte hartu zuten Lehen Hezkuntzako ikasleek *Ura da gu gara* antzezlanare-

kin. Ekainaren 20an, berriz, ikasturte akabailako txangoa egin zuten Hondarribi aldera. Ekainaren 21ean, ikasturteko hondarribi egunean, patio orduan, gosaria eta txokolatada izan zituzten. Ondotik, tiki enek film bat ikusi zuten eta zaharrena mahai jokoetan jostatu ziren.

Telefono gida

Herriko telefono gida berri du Euskara Bartzordeak, 2009an argitaratutakoa eguneratuz. Udalak sostengatu du ekonomikoki, baita herriko hainbat ostatu, enpresa eta elkartek ere. Ekain hondarrean banatuko dituzte herritarren artean.



ARGAZKIAK: IGOR UGALDE

Antzerki arrakastatsua

Haur, gazte eta heldu, ehun lagun baino gehiago elkartu ziren joan den ekainaren 19an frontoian, Patata Tropikala taldearen *Azken Eguzkiloa* antzezlanaren ikustera. Jendea gustura gelditu zen.



ARGAZKIAK: MARTIN LEGARRA

Eskolako kanpaldiak eta ikasbidaia

Urtero bezala, eliza garbitzeagatik sari gisa, berendua eta bidaia izan dira. Jendeak bietakoren batean parte hartzeko aukera zuen. Ekainaren 7an, 31 lagun berentzera bildu ziren Zahar Txokon. Aurten, herritarrak eta igantziarrak elkarrekin izan ziren. Bidaiari dagokionez, 43 lagunek hartu zuten parte. Ekainaren 9an Oñatira joan ziren eta gidari baten azalpenekin lagunduta, bisitaldia egin zuten. Arantzazura ere joan ziren. Han bazkaldu ondotik, Arrikutz kobak ikustera joan ziren. Gero, Oñatiko inguruetan ibili ziren eta iluntzerako etxera itzuli ziren.

GIZARTEA → EUSKARA MANKOMUNITATEAREN EKIMENA

Bortziritarrek euskaltegia doan izanen dute heldu den ikasturtean

Ikasleek 100 euroko fidantza ordainduko dute irailean, eta ikasturte bukaeran itzuliko zaie



TTIPI-TTAPA

Urrats handia eman du Bortzirietako euskalduntze-alfabetatze sistemak irailetik aitzinera, eta Nafarroa osoan aitzindari izanen den proiektua paratuko du martxan. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak orain arte indarrean egon den beka sistema orokortu egingen du, eta Bortzirietan erroldatuta dauden herritar guztiei irekita egonen da.

Ikasleek 100 euroko fidantza ordaindu beharko dute irailean, eta bueltan jasoko dute ikasturte bukaeran gutxieneko asistentzia betetzen badute. Zailtasun ekonomiko larriak dituzten ikasleen ka-

Alba Sistiagak prestatu du kanpainarako logoa. Bortz biribil berdeek bortz herriak irudikatzen dituzte, eta Bidasoa ibaiak zeharkatzen ditu. Ibai horrek markatzen du euskarara doan bidea. Hitz jokoa argia da, bide hori doan egiteko aukera izanen baitute bortziritarrek heldu den ikasturtean.

suan, 50 eurokoa izanen da fidantza.

Bi arrazoi nagusirengatik erabaki du euskara mankomunitateak ikasleei klaseak debalde eskaintzea: alde batetik, matrikulazioari bultzada eman nahi diote, inor bazter utzi gabe. Bertetik, euskara ikastea herritar guztion eskubidea den heinean ez lukeelako ikasi nahi duenarentzat kostu ekonomikorik ekarri behar.

Hiru urteko probaldia ezartzea erabaki du Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, eta sistema berriak ematen dituen emaitzen arabe-

ra erabakiko du aitzinera segitu ala ez. Ahalegin ekonomiko handia suposatuko du, edo hala nahiko luke mankomunitateak (herritar askok izena eman duten seinale). Horregatik, bortziritarrei inplikazio berezia eskatzen die mezua zabaldu dezaten, ingurukoei, delan kide, bizilagun, senide, egitasmoaren berri eman diezaioten.

Alfabetatzean arreta berezia paratu nahi du mankomunitateak. Sarritan kanpainak euskalduntzeari baino ez diote erreparatzen, eta euskaraz ongi solastu bai-

na idatzi eta irakurtzeko zailtasunak dituen jende aunitz dago Bortzirietan.

Ekainetik hasi da kanpaina egiten euskara mankomunitatea. Bortz herrietako euskara batzordeen bidez hasi da mezua zabaltzen, eta aurtengo Euskaltegiko ikasleekin ere izan dira heldu den urteko egitasmoa azaltzen. Udan ahoz ahokoari esker ahalik eta jende gehienarengana iristea espero dute. Irailean sartuko dira matrikulazio kanpaina, bai IKA euskaltegia bai euskara mankomunitatea bera.

EUSKOTREN

Titulu eskaintza zabaldu die Nafarroako bizilagunei

TTIPI-TTAPA

Tranbus titulu konbinatu berria abian jarri zuten ekainaren 20an eta horrek Eusko Jaurlaritzaren esku dagoen Euskotren garraioetan Nafarroako bizilagunentzat dauden bidaia titulu- en eskaintza zabal-tzea ekarri du.

Tranbus-ak Iruñea eta Gasteiz edo Bilbo artean bidaiatzeko aukera ematen du, La Unión eta La Burundesa konpainietako autobusetan, eta era berean Euskotreneko tranbien zerbitzuak erabiltzeko Gasteiz eta Bilbon. *Tranbus-ak* nagusientzako tarifa dauka, Joaneko eta Joan-etorriko motetan, erabiltzailearen jatorria/helmuga arabera, eta Iruñeko, Gasteizko eta Bilboko La Unión eta La Burundesa Autobus Konpainiak geltokietako txarteldegietan salgai egonen dira. 5 urte baino gutxiagoko haurrek doan bidaia dezakete, bai Euskotrenen bai La Unión eta La Burundesa konpainietan.

2015eko irailaren 7tik aurrera *Bortziri* titulu konbinatua ere eskaintzen du Euskotrenek Bortzirietako bizilagunendako. Azken honek Topoko (Hendaia-Lasarte) trenbide linea eta Bortzirietako herrien artean bidaiatzeko aukera ematen du, La Burundesako autobus zerbitzuen bidez.

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

Lizun
GAZTANDEGIA
Sunbilla · Tel: 948 450 862

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
TEL: 948 625 474 BERA NAFARROA

F. LANCHAS
Akutxidorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

GIZARTEA

HEZKUNTZA → EKAINAREN 16AN EGIN ZION AHOBATEZ NAFARROAKO PARLAMENTUAK GOBERNUARI

Baztan-Bidasoan Lanbide Heziketa Zentro berria eraikitzeko eskaria

Eskualdeko udal ordezkari ugari izan ziren Iruñean

TTIPI-TTAPA

Lanbide Heziketa eta enplegu politika batera lantzeko beharrezko neurriak ezartzea eskatu zion ekainaren 16ko batzarrean onartutako ebazpenean Nafarroako Parlamentuak Gobernuari. Ebazpen horren bigarren puntuan, «Baztan-Bidasoa-Urdazubi-Zugarramurdi eskualdearen erdian Lanbide Heziketako zentro integratu berria eraikitzea» ere eskatu zioten Nafarroako Gobernuari. Baztan, Bortziriak, Malerreka eta Xareta aldeko ordezkariak izan ziren Parlamentuan,



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztan-Bidasoaldeko udal ordezkariak, Nafarroako Parlamentuan, Lanbide Heziketa Zentro integratu berriari babesa ematen.

ebazpenari babesa emanez.

Lanbide Heziketa Zentro berri horrek eskualdearen errealitate sozioekonomikoa kontuan har dezala ere es-

katu dute, «tokiko beharrei egokitutako kalitatezko formakuntza eskainiz». Era berean, zentro berriak «euskarazko eskaintza bermatzea» ere eskatu du Parlamen-

tuak, «eskualdeko herritarren ezaugarri eta behar soziolinguistikoak kontuan hartuta».

Geroa Bai, EH Bildu, Podemos-Ahal Dugu eta I-E laukoak bultzatu-

tako ebazpenak dioenez, Baztan-Bidasoa-Urdazubi eta Zugarramurdi eskualdeko lanbide heziketa «egoera negargarrian dago, bai azpiegitura mailan, baita antolaketa eta eskaintza akademikoari dagokionez» eta horregatik planteatzen du garaia egokitutako zentro berriaren eraikuntza.

Testuinguru honetan, Nafarroako Gobernuaren inplikazioa ere eskatu dute, «azken markadan inbertsiorik ez delako egin eta Lanbide Heziketarako eta enplegurako erreferentzia izanen den zentro honen hornidurarekin, garapen sozialean eta ekonomikoan laguntzeko». Parlamentuak azpimarratu du eskualdeko udal guztiak proiektuaren alde daudela.

GIZARTEA → EKAINAREN 20AN EGIN ZUEN ISABEL ELIZALDE KONTSEILARIAK

Bidasoa-Leitzaldeko basozainen lana bertatik bertara ezagutzeko bisita

Abeltzaintza espedienteak kudeatzen dituzten bulegoak ere bisitatu zituen

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Ad-

ministrazio departamentuak Elizondon eta Donezteben dituen bulegoak eta Bidasoa-Leitzaldeko basozain horien bidura bisitatu zituen ekainaren 20an Isabel Elizalde kontseilariak.

Bidasoa-Leitzaldeko oihanzain taldeari dagokionez 17 lagunek osatzen dute (14 Bertizko Jaurerrian dago-

en bulego nagusian eta 3 Leitzan) eta lur-orotarikoko hamaka ibilgailu erabiltzen dituzte.

Oihangintza arloan, Nafarroa osoan jarduer gehien duen eremuetako bat da (bulegoaren lanaren %56 arlo horri dagokio). Habitarekin lotutako gaiak (bertako faunaren jarraipena eta kanpoko es-



UTZITAKO ARGAZKIA

Isabel Elizalde kontseilaria basozainekin Bertzen.

pezie exotikoen kontrola) eta ehiza, arrantza eta ingurumen kalitatearekin lotutako gaiak ere kudeatzen dituzte.

Ingurumen Departamentuak Elizondon eta Leitzan dituen bulegoak dagokienez, gehienbat

abeltzaintzarekin zerkusia duten espedienteak kudeatzen dituzte, azienden altak eta bajak, lekualdatzeak, gidak, etab...). Elizondoko bulegoan 5 langile ari dira eta Leitzakoan 7 langile.

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 17TIK 19RA

Giro ederra Asteburu Kulturalean

Koro Elizondo eta Migel Antzizarrek irabazi zuten gazta lehiaketa

Maider PETRIRENA

Asteburu Kulturala giro ederrean joan zen ekainaren 17tik 19ra. Nahiz eta eguraldiak ez lagundu, partehartze handia izan zen.

Ortziraletan, txokolatadaz eta Jokulandiaz gozatzeko aukera izan zuten haurrek. Helduek, Antonio Andevaloren eskutik magia eta umorez nahasitako emanaldia ikusteko aukera izan zuten eta ondoren afari autogestionatua egin zuten. Mus txapelketan 13 bikotek parte hartu zuten. Julen eta Urko Ibarra izan ziren irabazleak, bigarrenak Koro Zelaieta eta Ruben Irigoien, hiruga-

renak Timo eta Iñaki Etxeberria eta laugarren Joxe Mari Alzuri eta Ander Lizarralde.

Larunbatean, kuadrila batek Suspirorako mendi itzulian parte hartu zuen eguraldi kaxkarrari aurre eginez. Suspiroko bordan gosari eder bat egin zuten. Goiz-arratsaldean Jokulandiaz gozatzeko aukera izan zuten berriz ere haur eta gaztetxoek. Ilunabarrean Mendi Abesbatzak emanaldi ederra eskaini zuen elizan. 11 kanta abestu zituzten ipuin baten inguruan. *Haurrak lotaratzeko soinuak* abestia herriko bi txistularik parte hartu zuten, Markel Agestak eta Egoi Irigoienek.

Igandean, berriz, bederatzigarren urtez segidan Artisanu feria eta Gazta lehiaketa egin ziren. Eskulangile aunitz bildu ziren frontoian eta



ARGAZKIAK: GARI LARRABURU ETA MAIDER PETRIRENA

Asteburu osoan hainbat ekitaldi egin ziren eta eguraldi euritsu eta tristeari aurpegi alaia paratuz, jende aunitzek parte hartu zuen guztietan.

horien artean herriko talogileak zeuden. Herriko gaztetxoek 900 bat boleto saldu zituzten eta zare eder horren irabazlea Urtzi Larzabal izan zen. Gazta onena-

ren saria, berriz, Koro Elizondo eta Migeliko Antzizarrek eraman zuten (bertan ez zeudenez beraien biloba Oier eta Naroa Petrirenak jaso zuten saria), bigarrena

Xibolako Xanti Espeloesinek eta hirugarrena Pixarnekobordako Juana Mari Migeltorenak. Eguerdi partean herriko dantzariak emanaldia eskaini zuten.

UZTAILAREN 2AN JOKATUKO DA

Ariztigaingo mus tximista txapelketa larunbatean

M. PETRIRENA

Ariztigain kanpinak Mus tximista txapelketaren bigarren edizioa antolatu du uztailaren 2an, larunbatean 16:30ean hasita. Izen ematea uztailaren 1a arte egin daiteke, edo egunean bertan 16:15 arte kanpine-

an bertan, 10 euro ordainduta.

laz bezala, sari potoloak izanen dira. Txapelkunek 320 euro eta txapela lortuko dute; txapelkun ordeek 160 euro eta gazta; hirugarrenek 80 euro eta ardoa; laugarrenek 40 euro eta ardoa, eta abar...



ARGAZKIAK: AMAIA ARRETXEIA

Sunbildarrak dantza erakustaldian

Ekainaren 18an, Lesakako Harriondoan ikasturte osoan Rebeka dantza eskolan ikasitakoa erakutsi zieten bertaratutakoiei. Tartean Haizea Larzabal Arriola, Maialen Maritxalar Ibarra, Sara Gartzia Sanzberro eta Argia Agirre Arretxea sunbildarrak zeuden.



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

Latsako eskolako garaik gogoratu

Sunbillan orain dela urte aunitz Latsako eskolan ikasten zuten inguruko baserrietan bizi direnak. Zazpigarren urtez Ariztigain kanpinean bazkari ederra egiten dute, garai haiek gogoratu. Argazkian ikusi daitekeen bezala kuadrila ederra elkartu ziren giro ederrean bazkariak gozatzeko. 47 lagun elkartu ziren.

DONEZTEBE

GIZARTEA → UZTAILAREN 5ETIK IRAILAREN 6RA

Udako ludoteka martxan jarriko dute

Astelehenetik ortziralera eskolako gimnasioan

Marga ERDOZAIN

Uztailaren 5ean hasita, eta bi hilabetez, irailaren 6ra arte, udako ludoteka izanen da. Ludoteka eskoletako gimnasioan astelehenetik ortziralera burutuko da. Aurten berrikuntza batzuk ezarri dira umeen adinari dagokionez (2007-2013 bitarteko umeendako zerbitzua izanen baita). Prezioei dagokionez aipatu behar da uda osorako zerbitzua 160 eurokoa izanen dela eta 90 euro ordainduko dutela hilabete batez zerbitzua nahi dutenek. Prezio hauei hainbat deskontu egiten ahal zaizkie berezitasun batzuk betez gero: %25a familia unitate bereko 2. haurrentzat, %50a familia unitate bereko 3. haurrentzat, %20a familia ugariarentzat (3. berezitasuna 1. eta 2. berezitasunarekin batera ezina da). Udalak 12 plaza eskaini ditu eta bigarren taldea sortu ahal izateko bertze 12ko kopurua osatzeko ezinbertzeko baldintza izanen da.

Ikastetxeek atek itxi dituzte

San Migel ikastetxea eta Mendaur institutuak ikasleek udako opo-

rrak hartu dituzte. Ikasturtea ongi akitzeko txikiak bi besta polit izan zituzten. Ekainaren 19an Erreka guraso elkarteak antolatatu zuen urtero egiten duen besta. Bertan bazkaria, jokoak, musika eta apar bestaz gozatzeko aukera izan zuten bertaratu zirenak (100 lagun baino gehiago). Ekainaren 21ean, berriz, Haur Hezkuntza-koek eta Lehen Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailakoek magia gozatzeko aukera izan zuten.

Bosgarren eta seigarren mailakoak, berriz, Iruñera joan ziren Salting egitera. Ikastetxeak atek itxiko dituzte udako mantentze lanak burutzeko eta irailaren 1erako dena prest izateko.

Igeriketa ikastaroak eta aquagym

Igeriketa ikastaroak uztailaren egiten dira eta bitxanda antolatuko dira: lehendabizikoa uztailaren 4tik 15era eta bigarrena 18tik 29ra. Interesatuak izena igerilekuan bertan ematen ahal dute. Klaseak goizetan emanen dira eta ordutegiak osatutako taldeen arabera izanen dira. Aquagym ikastaroa ere uztailaren eskainiko da. Aurreko urtean bezala, eta taldea osatzen bada, arratsaldean ikastaro hau eskainiko da. Interesatuak igerilekuan apuntatzen ahal dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriarteko pilota txapelketaren finala jokatuko du Doneztebek

Doneztebek eta Iruñeak jokatuko dute uztailaren 2an, larunbat goizean Labrit pilotalekuan Nafarroako Herriarteko Pilota txapelketaren finala. Herriko taldeak txapelketa bikaina egin du eta lehen fasean bere multzoan lehenbizikoa izan ondok, finalerdietako kanporaketa 3-1 irabazi zion Berari ekainaren 19an. 2011. urtean lortu zuen lehen aldiz Nafarroako Herriarteko pilota txapelketa irabaztea eta Euskal Herrikoa ere irabazi zuen orduan. 2012an errepikatu zuen balentria. Ea aurten ere txapelarekin bueltatzen diren!

MAIATZA ETA EKAIANEAN

‘Herri bizi bat nahi dut, eta zuk?’ kanpainarekin bat egin dute herriko 56 komertziok

M. ERDOZAIN

Maiatzaren bukaeran hasita eta ekainean zehar herriko establezimendu gehienek (56 komertzio) eskualdean Denok Bat Federazioak bultzatuta egiten ari den *Herri bizi nahi dut eta zuk?* kanpainarekin bat egin dute. Kanpaina honekin eskualdeko herritar guztiei ohartarazi nahi zaie zein eginkizun garrantzitsua duten komertziok, zerbitzuek zein ostalaritzak gure herrian, karraketan argia, poza eta bizia ematen baitigute. Maiatzaren 25, 26 eta 27an erakuslehoak beltzez agertu ziren. Ondortik panel beltzak, berdeak, laranja eta gorriak izan dira erakusleho eta herriko hainbat tokitan agertu direnak. Kanpaina honekin gure eskualdean itxi diren merkataritza eta denden kopuruari arretra jarri nahi izan diote (120 itxi baitira 10 urtez), bertako merkataritzak sortzen dituen lanpostuak ere azpimarratu nahi izan dituzte. Kanpaina informatibo honekin eskualdeko komertzioen inguruko datu eta hausnarketak kalera tu dituzte. Kanpainak sare sozialetan ere bere oihartzuna izan du, eta akabailako bideo bat ere kaleratuko dute.



FLASH

Liburutegian udako ordutegia

Uztailean eta abuztuaren liburutegiak udako ordutegia eskainiko du. Astelehenetik ortziralera 10:30etik 13:30era atek zabalduko ditu.

Turismo Bulegoa zabalduko da

Uztailaren 4an turismo bulegoa zabalduko da. 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:30era eskainiko da zerbitzua. Astelehenetan itxia egonen da. Aurtengo berrikuntza izanen da bulegotik herriko bisita gidatuak bideratuko direla.

EGA ikastaroa abuztuaren

IKA Euskaltegiak EGA ikastaroa antolatu du abuztuaren 8tik irailaren 2ra. Interesatuak abuztuaren 3ra arte apunta daitezke 948 451555 edo *malerreka@ikauskaltegiak.eus*.

KIROLA → UZTAILAREN 2AN

Euskal Herriko 3. mailako aizkora kanporaketa jokatu da Bear Zanan

Hamahiru aizkolari ariko dira hiru txartelen bila eta bigarren kanporaketa abuztuaren 28an izanen da Lakuntzan

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko hirugarren mailako aizkora txapelketaren lehen kanporaketa jokatu da uztailaren 2an, larun-

bat 12:00etan Doneztebeko Bear-Zana pilota plazan. Denera 27 aizkolari ariko dira maila honetan eta bi kanporaketa eginen dituzte, larunbatekoa Donezteben 13 aizkolarirekin eta abuztuaren 28an Lakuntzako plazan 14 aizkolarirekin. Lau kanaerdiko moztea izanen da kanporaketetako lana eta bakoitzetik hiru lehenbizikoak sartuko dira finalean.

Doneztebeko kanporaketari dagokionez, eskualdeko lau aizkolari ariko dira: Beintza-La-



UTZITAKO ARGAZKIA

Erreka hirugarren Bartzelona-Donostia mendi bizikleta proban

Barcelona-San Sebastian non stop 2016 mendi bizikleta proba gogorra egin zen ekainaren 10etik 12ra. Txirrindulariek 770 kilometroko ibilbidea osatu behar zuten, gelditu gabe. Erreka taldeak Igor Agesta, Ibai Ordax eta Sergio Morate txirrindulariekin parte hartu zuen, erreleboka. Hamabosgarren izan ziren sailkapen orokorrean, baina Donostiako velodromoko podiumera ere igo ziren, hirugarren izan baitziren Enbaxadoreak kategorian.

baiengo Migel Angel Etxeberria eta Jon Telletxea, Zubietako Mikel Indakotxea eta Zigorako Jose Antonio Etxeberria. Arostegiko Oier Kañamaresek osatuko du Nafarroako ordezkaritza; beraiez gain, Joxe Felix Zubizarreta, Jokin Alkizalete eta Julen Aranberri gipuzkoa-

rrak; Aitor Jauregi eta Eloy Corchero arabarrak eta Beñat Lekue, Aritz Irazabal eta David Naredo bizkaitarrak ariko dira.

Lakuntzako kanporaketan, Patxi Mindegia zubietarra, Asier Pellejero aresoarra eta Eneko Saralegi leitzarria izanen dira eskualdeko aiz-

kolariak. Nafarroako ordezkaritza Iban Resanok, Goizeder Beltzak, Iker Gorritik eta Josu Agirrek osatuko dute; Gipuzkoatik Aitor Urteaga, Urtzi Olasagasti eta Unai Otaegi; Bizkaitik Aritz Oregi, Xabier Garcia eta Done Itxasi eta Arabatik Iñaki Kintana ariko dira.

195 Itik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Erreka, igerileku eta hondartzarako toallak

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

ITUREN

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 21EAN

Ikasturte bukaerako besta egin dute Pulunpakoeak

Irailaren 7ra arte agurtu dute eskola

Arkaitz MINDEGIA

Urte guztian burubelarri lanean aritu ondok, ekainaren 21ean Pulunpako eskolako irakasle, haur eta gurasoek kurtsu bukaerako besta ospatu zuten. Goizetik ekitaldiz betea izan zuten eguna. Jokoak, herri kirolak, aurpegi margoketa, bazkaria, puzgarria eta akitzeko apar besta. Egun paregabea pasatu zuten. Uda ona pasa eta irailaren 7ra arte!

San Juan Suak

San Juan bezperan urtero bezala Iturengo plazan 20:30ean xingar eta txistorjatea egin zu-

ten eta ondok su saltoak egin zituzte. Eta Aurtizen, berri, Bete-neko atarian elkartu ziren mahai inguruan afaldu eta ondok su saltoak egitera.

Bestetako bilerak

Udala eta herritarrak herriko bestak antolatzen ari dira. Dagoeneko bilerak eginak dituzte eta hurrengo alean egitarauaren berri izanen duzue.

Maika Ariztegi sanferminetan

Sanferminetako herri kirol saioetan parte hartuko du aurten ere Maika Ariztegi. Bi saio egingen ditu: uztailaren 12an ingude altxatze txapelketa eta uztailaren 13an aizkora erakustaldia eskainiko du.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Bistan da giro ederra izan zutela ikasturte bukaerako ospakizunean.

Bertze aldetik, joan den igandean Abaltzisketan apustu berezi bat jokatzea zuen. Irune Izkue

labaiendarrarekin batera, Iñaki Aierbe atarrendaren kontra aritzeko zen: bi emakume

txanda librean esku bakarrez aritzekoak ziren gizasemearen kontra, lau kanaerdikotara.

UZTAILAREN 7AN ZUGARRAMURDIN ETA 22AN BERAN

Ekitaldiz beteta dator Kultur programa eskualdera datozen hilabeteetan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuo Kultura Zuzendaritza Nagusiak antolatutako Kultur programak ekainaren 17tik irailaren 10era musika, dantza eta arteko 41 emanaldi prestatu ditu. Eskualdeko lehen ekitaldia Leitzañan egin zen ekainaren 18an, Hesian taldeak eskaini zuen kontzertuarekin eta Peru Harriko bisita gidatuarekin.

Eskualdeko hurrengo ekitaldia uztailaren 7an, San Fermin egunean izanen da Zugarramurdin. Alde batetik, ortzegunean 18:00etan Alduideko Izarrak folk taldeak emanaldia eskainiko du leze-

tan. Aitzinetik, 16:00etan, *Zugarramurdi zentzumen guztietatik* ordubeteko bisita gidatua eskainiko dute Zugarramurdiko plazatik abiatuta. Gehienez ere 60 bisitari onartuko dituzte (Prezioa: 3,50 euro helduek eta 2 euro 6-12 urte arteko neska-mutikoeak). Edabe magikoa ere dastatuko dute. Aitzinetik erreserba egiteko eta sarrerak hartzeko Sorginen Museora joan behar da (info@zugarramurdi.es edo 948 599004 telefonoa).

Uztailaren 22an, ortziralean, 21:00etan Berako Herriko Etxeko Plazan Animal Blues talde nafarrak kontzertua eskaini-

ko du. Emanaldi honekin loturik, Lesakako Burdinaren Museora bisita gidatua eskainiko dute 12:00etan. Gehienez ere 10 bisitari onartuko dituzte eta ordubeteko bisita izanen da (2 euro). Erreserbak Lesakako Udaleko Kultura eta Turismo Bulegoan egin daitezke (kultura@lesaka.eus edo 948 638007).

Abuztuaren 5ean Elizondon eta 25ean Donamarian izanen dira kultur ekitaldiak eta bisitak. Bertizko Natur Parkean ere erakusketa zabalduko da uztailaren 20tik irailaren 4ra. Hauen berri zehatzagoa hurrengo aleetan emanen du TTIPI-TTAPAK.



ARGAZKIA: ANDREW SMITH

Mahaitik altxatu eta dantza ere egin zuten batzuk Uritzako festan.

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 11N

Giro bikaina izan dute Uritzako festan

40 bat lagun bildu ziren bazkarian eta egunpasa ederra eginez

Fermin ETXEKOLONEA

Uritzako fiesta ongi joan zen ekainaren 11n.

Berrogei bat lagun bildu ziren bazkarira eta giro bikaina izan zen. Bazkariaren aitzakian egun osoa ematen da iturri inguruan: etxola osatzeko aitzakiarekin gosaria, gero bazkaria (paella egiten Iñaki Santxez eta Mixel Ge-reka eta oilaskoa parri-

llan prestatzen Mikel Loiar-te aritu ziren) eta soberan gelditutakoarekin afaria. Musikarekin Joxemari eta Mikele aritu ziren eta bertsoan Gorosterrazu anaiak eta Alazne Untxalo.

Antolaketa lanen ar-dura handiena Mikel Loiar-te, Iñaki Santxez



UTZITAKO ARGAZKIA

Tomasa Gorosterrazu omendu du Udalak

Tomasa Gorosterrazu Ezkurak 100 urte bete zituen maiatzaren 15ean. Domintxenea etxean bizi da. Zubietako Udalaren eta herriaren izenean, ekainaren 18an joan ziren omentzera Ernesto Dominguez alkatea eta Leire Bazterrika zinegotzia. Zubietako Udalak, familiari eskertu nahi dio egindako harre-ra.

eta Mari Joxe Otxandorenaren gain joaten da eta estimatzekoa daberaien lana, baina gainerakoek ere eskua botatzen dute.

Joaldunak lanean

Joaldunek Kukai ikus-

kizunean parte hartu zuten Donostiako Txillida Lekun, Jon Maia dan-tzari ezagunarekin. Donetztebeko San Pedro bestetan ere aritzekoak dira eta udako beste ateraldi batzuk ere eginen dituzte.

URROZ

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 11N

Herritarren dantza saioa plazan

Udazkenaz geroztik ikasi dutena erakutsi zuten bazkaria baino lehen

Joseba URROTZ

Ekainaren 11n besta eguna izan zen herrian. Herri bazkariaren aitzinetik, berrikuntza bezala, udazkenaz geroztik euskal dantzak ikasten



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Aspaldiko partez, herriko dantzariak ikusteko aukera izan zen plazan.

aritu den taldearen erakustaldia izan zen. Ez zen plaza ikuslez bete, baina holako ekintzak

Urrozen izatea, bada zerbait.

Ondotik, erran bezala, 80 lagun inguru el-

kartu ziren bazkaltzeko, Irazu eta Zubeldia bertsolari eta Salaberri musikariekin lagunduta.

EZKURRA

HISTORIA → ARTXIBO HISTORIKOEI BEGIRA

Nor da Santa Kruz ermitaren jabea?

Herri-lurretan eraiki eta herritarren diruarekin ordaindu zen

Fernando ETXEBERRIA

Udal artxiboan bada Santa Kruz ermitaren eraikuntza eta jabetzari buruzko informazioa biltzen duen dokumentazioa. Bertan, irakur litekeenez, garai batean ermita bat zegoen Baztanea bordaren inguruan, egungo hilerritik hurbil. Denbora pasa ahala eta behar bezala zaintzen ez zutelako, erortzeko zorian zegoen eta hori ikusita, elizgizonek herriaren irteeran ermita berri bat egitea exijitu zuten, Leitza eta Goizueta joateko bidean.

1721EAN KONPONTZEKO LEHENBIZIKO AGINDUA

Lehenbiziko dokumentua, 1721eko urriaren 4koa da eta bertan probintziako bisitari generalak Ezkurrako alkateari eta bertako erre-

gidoreei ermita konpontzeko agindu zien egoera oso txarrean, erortzeko zorian... zegoelako. Gainera, lanak egiteko 6 hilabeteko epea eman zien eta apezari bertan mezarik ez emateko agindu. Obrak epe horretan egiten ez baziren, basilika erabat itxiko zela zioen.

Herriko agintariek baina, ez zioten kasurik egin eta hauen jarrrera ikusita, bikario jeneralak Ezkurrako alkate, epaile eta herritarrei zuzendutako gutun bat idatzi zuen. Santa Kruz ermita egoera oso txarrean zegoela azaltzen zuen bertan eta erortzeko zorian sei urte baino gehiago zeramatzala. Horregatik, bertan ez zen mezarik ematen. Ermita berria eraikitzeko eskatu zuen, eraikinarren egoera txarraz gain, herritik urrun zegoelako eta bertara joateko bidea egoera penagarrian. Euriteen garraian, *via crucisa* egitea arriskutsua eta ia ezinezkoa zen. Horregatik, herritarren diruarekin eta ongileek emandako li-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Goiko argazkian, ermita kanpotik eta behekoan barrutik.

mosnekin eraikin berria egiteko agindua eman zuen. Herri-lurretan eraikiko zen, horrela jendea mezara joan eta *via crucisa* egingo zuelako. Ermitak berak, ez zuen xentimorik, lanparako olio ere partikularrei esker mantentzen zuten. Gainera, urtebeteko epea eman zien ermita berria eraiki eta beste

ermita zegoen tokian gurutze bat jartzeko. Eskaria betetzen ez bazen, zegozkion neurriak hartuko zituztela aipatzen zuen.

Azkenean, herritarren diruarekin eta ongileen limosnekin eraikizen ermita eta 1727ko apirilaren 26an sinatutako dokumentu batean gotzainak Lorenzo

de Oronoz prioreari ermita berria bedekatzeko baimena eman zion.

Hiru dokumentu hauek arretaz irakurriz gero, honako galdera hau sortzen zaigu: nor da herri-lurretan eta herriko bizilagunen eta ongileen diruarekin eraiki zen Ezkurrako Santa Kruz ermitaren jabea?



ttipi-ttapa laguntzen dutenek onura fiskalak dituzte



ttipi-ttapa RI

DATORREN URTEKO ERRENTA AITORPENEAN BERRESKURATUKO DITUZU

Onura fiskala partikularrentzat egindako donazioaren %80 itzuliko zaio errenta-aitorpenean (lehen 150 eurotan), eta %40 kopuru haundiagoko donazioetan.

Deitu 948 63 54 58 telefonora edo idatzi bagoaz@ttipi.eus helbidera

ARKUPEAK



IRTEERA → EKAINAREN 2 ETA 18AN

Gavarnie inguruan eta Galizian izan dira erretiratuak

Elkarteko 139 kide joan ziren Galiziarra eta 84 mendizale Frantziara

Fernando ETXEBERRIA

Ekainaren 2an Arkupeak taldeko 139 kide, 72 plazako bi autobusetan banatuta, Galizia aldera abiatu ziren. Bidean, Avilesekin egin zuten bazkaltzeko geldialdia eta iluntzean iritsi ziren A Coruña-ko Riazor hotelera.

Hurrengo egunean bi talde osatu zituzten Santiago de Compostela, Muxia, Camariñas, Finisterre, Lugo, Carnota eta Muros bisitatze-ko. Ikusi zituzten toki- en artean deigarriena- takoa Ribadeoko itsa- sadarra izan zen. Ber- tan katedralen hondar-

tza dago, mundu mai- lan ezaguna den txo- koa. 35 metro baino ge- hiegoko altuera duten itsaslabar ikusgarriak daude bertan, itsasoak eta haizeak eraldatuta- ko paisaia aldakorra, ka- tedral bat gogorazten duena.

Finisterre eta Carno- tak ere txundituta utzi zuen bat baino gehia- go. Bertan dago Carno- tako garaia (hórreo), Ga- lizian dagoen mota ho- netako eraikinik handie- netakoa, 35 metroko lu- zera duena. Horretaz gain, 7 kilometroko hon- dartzatza ederra ere badu.

Azken egunean, bi- daiari behar bezalako bukaera emateko ma- riskada egin zuten. Tal- dean zeuden adituek esan zuten, sekula jandako itsaskirik eta ri- beiro xuririk goxoan- k dastatu zituzten.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Goian Gavarniera joan zen taldea eta Gavarnie ikus litezke eta azken bietan Galizia aldean ibilitakoak.

BIDAIA GAZI-GOZOA

Elkarteko 84 mendi- zalek egin zuten ekai- naren 18an Gavarnie eta Tourmalet inguruak eza- gutzeko antolatu zen ir- teera. Eguraldia, gora behera, ezin izan zuten nahia adina gozatu. Eu-

ria egin zuen joaneko bidaia guztian zehar eta Gavarniera iritsitakoan atertu eta 12:30 aldera eguzkia atera zela iku- sitakoan, animatu egin zen bat baino gehiago. Ur-jauzira iritsi bitarte- nahi adina ibilbidean ez zuen

IRAILAREN 30 ARTE

Argazki, margo eta marrazketa lehiaketak martxan daude

F. ETXEBERRIA

Azken urteetan be- zalaxe, Arkupeak El- karteko kideek barru- an duten artista aza- lertzeko aukera izan- nen dute. Literatur le- hia eta egin duten lehenbizikoa eta parte hartu nahi zutenek maiatzaren 30era arteko epea izan dute lanak aur- kezteko. Euskarazko eta gaztelazko lan- nak aurkeztekoen poesia eta narrazio la- burrak. Aurrerago emanen dizuegu irra- bazleen berri.

Argazki, margo eta marrazketa lehiaketa- tan parte-hartzeko au- kera dago oraindik eta animatzen direnek irailaren 30era arteko epea izanen dute be- raien lanak aurkezte- ko. Lanek bete beha- rreko baldintzak elkar- teko kideen artean ba- natutako boletinean eta web orrian kon- sulta litezke. Lehen- biziko sariak 200 eu- rokoak izanen dira eta bigarrenak 150 euro- koak.

euririk egin eta paraje eder hartaz gozatu ahal izan zuten, tartean elu- rrak xuritutako kaxko- ak ikusiz.

Tourmaleta bisitatzeko ordua iritsi zenean, ordean, ezin izan zuten goiti igo, behe laino itxia zegoelako. Horren ordez eta aurrez prestatu gabe egon arren Lourdesera joan ziren. Bertan zorte pixka bat izan eta ez zuten euririk egin haitzuloa bisitatzetik aterata arte.

LEITZA

GIZARTEA → ELKARTASUN KANPAINA

Siriako errefuxiatuentzat mila kilo material bildu dituzte

Amazabalgo DBH1eko ikasleek egin dute material bilketa

JM BARRIOLA

DBH1eko ikasleek Udalaren eta Zaporeak proiektuaren laguntzarekin, material bilketa egin zuten ekainaren 6tik 11ra arte Siriako errefuxiatuei laguntzeko. Azkenean, Tonabat material jarri dute Greziara bidean.

Ebaluazioan zehar, etorkinei buruzko aurre-iritziak landu dituzte, bideo desberdinak eta datuak ikusiz eta elkarren artean asko hitz eginez. Horrekin lotuta, Siriako errefuxiatuen kasua aztertu zuten, eta gerrazergatik sortu zen aztertu. Ikasturteari amaiera emateko, ekintza bat jarri behar zuten martxan ikasleek eta proposamen desberdinen artean material bilketa izan zen, bozkatuena.

Kanpaina hasieratik bukaerara landu zuten Amazabal eta Erletako zuzendariei jakinarazpenak egin, Karrape irrati-aren eta Ttipi-Ttapa al-

dizkarian kanpainaren berri eman... Institutuko sarreran, kontenedore hori bat jarri zuten gero, jendeak bertan materiala utz zezan. Egunero egunero, ikasleak arduratzen ziren almazen txiki batean hustutzeaz eta txukuntzeaz.

Aitziber Lekuona irakasleak azaldu digunez «pozik egin duten lana izan da, motibaturik egin dute. Eta larunbatean, jende ugari hurbildu zen plazara. Material kilo piloa bildu dugu. Parde-lak, umeentzako esne hautsa eta bodyak, haur eta gaztetxoentzako barruko arropa, higienarako materiala eta janari piloa».

Jendearen parte hartzea handia izan da eta ikasle-irakasleek ez ezik, uste dute Siriako errefuxiatuek ere benetan eskertuko dutela ekintza xume honekin lortutakoa. Zaporeak proiektukoak bildu zuten materiala Greziara eramateko.

DBH1eko ikasleen eta institutuaren izenean eskerrak eman nahi dizkiete euren laguntza eman duten guztiei.



ARGAZKIA: AMAZABAL INSTITUTUA

Material bilketa arrakastatsua eginda, tona bat material jarri dute ikasleek Greziara bidean.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

VIII. Sagardo Eguna arrakastatsua izan zen

Ekainaren 18an ospatu zen zortzigarren Sagardo Eguna. Eguraldia ere alde, egunean zehar euria egin bazuen ere ateri egon baitzen dastaketako garaian. 550 edalontzi inguru banatu ziren eta 23 sagardogileren zukuak edateko aukera izan zen karrapean eta plazan. Gainera, herriko zenbait ostalari eta tabernarik txorizo egosi, tortilla eta gazta pintxoak prestatu zituzten, sagardoa edaten zutenek moka-dutxoa jan zezaten. Sagardoa banatzen, Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoatik sagardogileak eta herritarrek ere laguntzen aritu ziren, 40 lagun inguru. Ondoren Hesi-aren taldeak kontzertua eskaini zuen.



ARGAZKIA: IRAKURLE TALDEA

Irakurle taldeak ikasturte bukaera ospatu zuen

Ekainaren 8an egin zuten ikasturte honetako azken saioa irakurle taldekoek. Paco Rocaren *Zimurrak* liburuari buruz aritu ziren hizketan eta ondoren, behar den bezala bukatzeko afaria egin zuten. Hirugarren denboraldia izan da aurtengo eta dagoeneko 23 liburu irakurri dituzte, denak euskaraz.

Ba al zenekien

Torrea Libre eguna ospatu zutela ekainaren 18an. Urtea pasa da Estatuko Auzitegi Nazionalak sententzia kaleratu zuenetik. Aldarrikapen egun borobila izan zen: mural margoketa, bazkaria, mosaikoa, afaria, parranda...

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 24 ETA 25EAN

Sanpedroak berreskuratu dituzte Lagunartekoek

Azken bi urteetan ez dira ospatu

Juana Mari SAIZAR

Azken bi urtetan San Pedroak ez dira antolatu baina aurten Lagunartekoak festa berreskuratzearabaki du. Azken urteetan antolatu ez izanaren arrazoiak desberdinak izan zirela aipatu dute Lagunartekoek «baina batez ere, festak inertiaz prestatu eta ilusioa galtzen ari zela ikusi genuelako hartu genuen erabakia». Aurten ordea, gogotsu zeuden eta hau idazterako garaian, oraindik ospatzeak baziren ere, herritarrak animatu eta giro bikaina sortuko zela es-

pero zuten. San Pedro aurreko asteburuan ospatu dituzte, ekainaren 24 eta 25ean. Hurrengo aldizkarian emango dizuegu zehatzago honen berri.

Egur lote berezien banaketa

2016ko egur loteen artean haritz egurrezko 8 lote banatu behar dira. Ahalik eta era egokien banatzeko udalak erabaki zuen interesa zuenari eskaera egiteko aukera ematea. Izenemateko epea bukatu da eta datozen asteetan jakinaraziko dute nori egokitu zaizkion. Eskaera eskaintza baino handiagoa edo txikiagoa bada, banaketa jendaurreko



ARGAZKIAK: NAZABAL ESCOLA

Eskolako haur eta gaztetxoek primeran pasa zuten Donostian

Ekainaren 6an Nazabal eskolako 26 ikasle eta 4 irakaslek txangoa egin zuten Donostiara. Goizean, 09:00etan abiatu ziren herritik eta 16:30ean itzuli ziren Aresora. Hasteko, Ondarreta hondartzara joan ziren eta han karramarroak hartu zituzten. Horietako 8 koxkorrak eta herrira bueltatu aurretik libre utzi zituzten hartu zituzten toki berean. Futboleak eta parkean jolastu eta batzuk uretan ere sartu ziren giro frexko xamarra egon arren. Ondoren, Alderdi Ederrera joan ziren bazkaltzera, zerua beltz eta Kontxako aterpe bila. Paseo zoragarria egin zuten Ondarretatik Alderdi Ederrera. Bazkaldu eta gero, bertako parkean jolastu eta Boulebarrean izozki bana jan ondoren etxera bueltatu ziren. Gainera, eguraldia lagun izan zuten, lainotuta egon arren, euria Aresora iritsitakoan hasi baitzuen.

zozketa bidez egingo dela ere aipatu du udalak.

Hitzaldi interesgarria

Guraso Elkarrekin antolatuta, *Nola saihestu*

eguneroko gatazkak hitzaldia eskaini zuen Nerea Mendizabal psikopedagogoak. Guraso eta hezitzaile batzuk joan ziren eta oso interesgarria izan zen. Bi zati izan zi-

tuen teorikoa eta praktikoa. Praktikoan bakoitzak bere eguneroko gatazkak aipatu zituen. Bi ordu eta erdi iraun zuen saioak eta jendea oso gustura egon zen.

ARANO

GIZARTEA → 'NOLAKO ARANO NAHI DUZUE HEMENDIK URTE BATZUETARA BERTAN BIZITZEKO?'

Herriaren etorkizunaz hausnartuko dute herriko haur eta gaztetxoek

Uztailaren 1ean 10:00etan egingo dute saio berezia

Ainhoa ANSA

Arano etorkizun batean irudikatze egiteko izango dute gure txikiek. Konturatu gabe euren gain hartzen ari

dira herrian garrantzia handia duten ohitura batzuen jarraitasuna eta bizirautea.

Horregatik, herriaren etorkizuna bermatuko

duten gaztetxoei galdetuko diegu, nolako Arano nahi duten hemendik urte batzuetara bertan bizitzeko. Hortik aterako ondorioak hur-

rengo saio batean, gainerako herritarrei azalduko dizkiete.

Herriko elkarteetan, 10:00etan egin dute hitzordua. Animatu!

GOIZUETA

GIZARTEA → MAIATZEKO BATZARREAN

Milioi bat euro pasatxoko udal aurrekontua onartu dute

Mendi ustiapenagatik diru-sarrerak murritzu dira

TTIPI-TTAPA

la urte erdia pasata onartu ditu aurrekontuak Udalak, 1.027.966,50 eurokoak, maiatzeko batzarrean. Diru sarreak murritzu izanak zailtasunak eragin ditu aurrekontua ixteko. Izan ere, Udalaren sustengu nagusian jaitsiera nabarmenak izan dute: mendi ustiapenean 300.000 euroko irabaziak izatetik 60.000 eurokoak izatera jaitsi da.

Bestalde, partikularrek aurreko urteetan baino mendi gehiago atera dituztenez, mendi pisten erabileragatik ezarritako zergaren kontzeptupean aurreko urtean 2.000 euroko diru bilketa egitea espero zena, orain, 29.000 eurokoa da.

Sarreran jaitsiera bai, baina zorrik ez du Udalak eta zenbait urtez au-

rrezutako dirua ere badu: 1.700.000 euro. Aurrekontuak itxi ahal izateko inbertsio bat aurrekontuan jaso gabe utzi dute (mendi inbertsioetarako 300.000 euro) eta behin behin-betikoz onartuta dagoeanean aurrekontu-aldaketa egingo dute, aurrezutako dirutik finantzatu dena.

Beste inbertsio politoa plazako zolaketa-rena da, 318.450 euro. Baina gastutik, 55.450 euro besterik ez ditu jarriko Udalak, bestea Nafarroako Gobernuak diruz-lagundua egongo baita.

Egingo den beste inbertsioa Tifanixoko teilatua eta lau paretak berritzea izango da (67.000 euro) eta herritarren eskakizunei erantzuten dioten inbertsio txikiak ere badaude. Horieta-ko batzuk urte bukæran egin zen herri batzarrean proposatutakoak: gimnasioaren konponketa eta bidegorrian hesia jartzea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Jose Manuel Zubiri udal langilearen erretiroan omenaldia

Jose Ramon Zubiri 16 urtez aritu da Udalarentzat lanean. Alguazilaren laguntzailer gisa edo era askotako lanetan. Maiatzaren 31n zuen azken lan eguna eta ekainaren 4an, lehengo eta oraingo lankideak eta udalkideak hamaiketako eder batera gonbidatuz eman zion amaiera bere ibilbide honi.



UTZITAKO ARGAZKIA

Sukaldaritza ikastaro arrakastatsua aurten ere

Umore Ona elkarteak antolatutako sukaldaritza ikastaroa arrakastatsua suertatu zen. Maiatzean hiru saio edo jardunaldi egin zituzten. 12 lagunek parte hartu zuten Fagollagako Maria Angeles Huizi sukaldariarekin eta balorazio positiboa egin dute denek.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

UZTAILAREN 3AN

Umore Ona elkartearen eguna

TTIPI-TTAPA

Umore Ona elkartearen atal ezberdinek bere eguna ospatuko dute uztailaren 3an. Aurretik, uztailaren 2an, larunbatean 18:00etan, Umore Ona eta herriko gazteen arteko areto futbol partida jokatu dute. Igande goizeko 11etan pilota partidak jokatu dituzte Umore Onako pilotariak eta ondoren, Umore Ona Abesbatza eta dantza taldearen emanaldia herrian zehar. 14:00etan bazkaria izanen dute elkartearen.

Egunsentiak kantari Hernaniko festetan

Umore abesbatza Hernaniko San Joan festetan izan zen, Ereñotzuko Ozenki abesbatza eta Hernaniko Kantuzekin batera, kalez kale Aurorak edo Egunsentiak kantatuz ekainaren 19an, azken urte hauetako ohitura jarraituz. Ekainaren 25ean Igeldon kantatzekoa zen eta uztailaren 17an Kaskanteko auroren bilkuran parte hartuko du.

GIZARTEA → EKAINAREN 21EAN IRUÑEAN

Belate eta Almandozko tunelen arrisku maila salatu dute 31 udalek

2016an ere ez dagoela inolako neurririk aurreikusita salatu dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako 31 udal-ek Belate eta Almandozko tunelen arrisku maila handia eta erabiltzaileen segurtasun eza salatuz instantzia erregistratu zuten ekainaren 21ean Nafarroako Gobernuako Garapen Ekonomikorako presidente ordetzan, Herri-

lan zuzendaritza nagusian, Kontserbazio Zerbitzuan eta Bide Segurtasunerako atalean.

Hain zuzen, Atarrabia, Burlata, Baztan, Ezkabarte, Oiaibar, Odieta, Ultzama, Esteribar, Anue, Lantz, Basaburua, Bertizarana, Doneztebe, Elgorriaga, Zubieta, Ituren, Eratsun, Ezkurra, Saldias, Beintza-Labaien, Oiz, Urroz, Donamaria, Sunbilla, Igantzi, Arantza, Etxalar, Lesaka, Bera, Urdazubi eta Zugarramurdiko udalek sinatu zuten idatzia.



UTZITAKO ARGAZKIA

Benito Lertxundik Zigako plazan kantatuko du abuztuaren 7an

Abuztuaren 7an, igande ilunabarreko 21:30etan Zigako plazan Benito Lertxundiren kantaldia izanen da, sarrerak aurrez 15 eurotan eta egunean 18 eurotan (uztailetik aintzinerara jarriko dira salgai eskualdeko hainbat tokitan). Aspaldi da Benitok ez duela plaza batean kantaldirik eskaintzen. «Zigetarren ilusioa errealitate bihurtzera doa. Horretarako zonaldeko hainbat enpresetan borondate ekonomikoa eskatu dugu. Horren truke egunean bertan eta sare sozialetan enpresaren iragarkia zabalduko dugu. Borondatea emateko epea ekainaren 30a arte luzatu dugu. Oraindik ez bagara zure negoziotik pasa, edo partikular bezala kontzertu honetan ekonomikoki lagundu nahi baduzu jarri harremanetan ziga.herria@gmail.com helbidean». Argazkian ageri denez, zigatarrekin bildu dira Benito Lertxundi eta Olatz Zugasti kontzertua prestatzeko.

Idatziak gogoratzen duenez, 2015ean 500 metro baino gehiago dituzten tuneletan egin zen arriskuen azterketan «arrisku handikotzat» jo zituzten Alman-

doz eta Belatekoak eta azpimarratu zen behar beharrezkoa zela neurriak hartzea.

Baina urtebete baino gehiago pasa eta gero, «ez tunel hauen se-

gurtasun arduradunak, ezta Nafarroako Gobernuak ere, ez dute inolako neurri zuzentzailerik hartu». 2016an ere ez dago inolako neurririk aurreikusita.

ELIZONDOko plazan EROSKI CITY BERRIA

Ekainaren 23tik antzinerazure zerbitzura

Astelehenetik Larunbatera
09:00-21:00

ZATOZ ETA IKUSI !

Santiago 12 · ELIZONDO
T. 948 580 005



BAZTAN

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 19AN

Lekarozko ikasle ohiek elkartearen mendeurrena ospatu dute

Modu berean, ikastetxearen lehen harria ezarri zutelako 125 urte bete direla ere gogoratu zuten

TTIPI-TTAPA

Lekarozko ikasle ohiek urteroko bilkura egin zuten ekainaren 19an. Aurtengoa berezia izan da, ikasle ohien elkartearen sortu zenezetik ehun urte bete direlako alde batetik eta ikastetxearen lehen harria duela 125 urte ezarri zutelako, bertzetik.

Gerora ezagun egin den jende aunitz pasatu zen bere garaian Lekarozko ikastetxetik eta horietatik aunitz bueltatzen dira urtero. Aurtent, Mexikotik Josetxo Barberena etorri zen, baita Jose Antonio Zal-

dua (FC Barcelona futbol taldean eta Espainiako selekzioan aritu zen baztandar bakarra), Pedro Miguel Etxenike fisikari ospetsua eta oraindik famatuagoa den Martin Berasategi sukaldaria ere, bertzeen artean. Denera, berrehun ikasle ohi baino gehiago.

Gaur egun Bilboko gotzaia den Mario Ize-tak eman zuen meza Elizondoko elizan. San Migelen irudia ere bertan izan zuten. Ondotik, Lekarozko txokoan segitu zuten bestarekin. Argazki zaharren erakusketan aunitzek beraien erretrato zaharrak ikusteko aukera izan zuten eta Joseba Aristizabalek zuzenduta, ikasle ohi talde batek prestatutako dokumentala ere ikusi zuten. Lekarozko tortilla dastatzeko aukera ere izan zuten.



Ba al zenekien

Belate eta Erdizeko udako alalekuetan sartu direla aurtent ere aziendak. Erdizen 450 burutik goiti eta Belaten 200 inguru sartu dira.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Lekarozko ikasle ohiak, garai bateko elizaren aitzinean.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Baztango Emakumeen I. Bizikleta Ibilaldia egin dute

27 emakumek parte hartu zuten Baztanen ekainaren 19an eginiko emakumeen bizikleta ibilaldian. Mujeres en Bici/Bizikume izan da antolatzailea, emakume bizikletazaleak biltzen dituen elkarte da eta 120 kide dira dagoeneko. Ibilaldi ederra egin zuten Baztango 15 herrietatik pasatuz. Gero Erratzuko karpinean bazkaldu zuten. Gustua ematen du emakumeen pelotoi gero eta handiagoak karreteran ikustek!!! Animo txirrindulariak!

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444 | M. 688 605 182
ARIZKUN

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua
Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 6TIK 9RA

Azpilkuetan ere Sanferminak ekitaldiz gainezka datoz

Igandeko patata tortilla lehiaketako irabazleak 100 euroko saria eskuratuko du

TTIPI-TTAPA

Ekitaldiz gainezka dator San Fermin beste tango egitaraua Azpilkuetan, Iruñeari edo Lesakako inbidiarik gabe.

ASTEAZKENA, UZTAILAK 6

- 18:30ean Txupinazoa beste hasiera emateko.
- 19:00etan Frontenis txapelketako final handia.
- 21:00etan Ezkil jotzea.
- 21:30ean Baztan Zopak Herri-Arte elkartean.
- 00:30etik aurrera dantzaldia Joxe Anjelek alaiturik.

ORTZEGUNA, UZTAILAK 7 SAN FERMIN EGUNA

- 11:00etan Meza nagusia San Fermin sailduaren omenez.
- 12:00etan Luntxa Herri Arte elkartean.
- 16:30ean Mus txapelketa.
- 20:00etan Kantaldia Aire Ahizpen eskutik. Ondotik, Azpilkuetako Enara Arregik kantaldi txiki bat eskainiko du.
- 21:45ean Dantza-Jazz erakustaldia Azpilkuetako neskatxen eskutik.

ORTZILERIA, UZTAILAK 8 HAUR ETA GAZTEEN EGUNA

- 10:00etan Argi soinuak.
- 11:00etan herriko mus txapelketa.
- 14:00etan herri bazkaria trikitilariekin.
- Arratsaldean umeen parkea, karts eta gaztelu haizatuekin.



- Arratsaldean eta gauetan dantzaldia Txingudi DeeJayekin.

LARUNBATA, UZTAILAK 9 ZIKIRO JATE EGUNA

- 8:30ean Gosaria.
- 14:30ean Zikiro jatea Frantzisko akordeoi-lariak alaiturik.
- 21:30ean Zikiro afaria.
- 00:30etik aurrera dantzaldia Hauspolariak taldearekin eta bestak akitzeko *Gaixoa Ni*.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Haur, gazte, nahiz heldu, ongi pasatzeko aukera izanen da.

UTZITAKO ARGAZKIA

Ikasturte bukaera ospatu dute Baztango AEK euskaltegian ere

Ekainaren 3an, Baztango AEK euskaltegiak ikasturteari akabaila emateko afaria egin zuen Elizondon. Trikipoteoa izan zuten arratsaldeko 7:30ean hasita eta ondotik 22 lagun elkartu ziren afaltzeko eta ikasturteko gorabeherak giro ederrean komentatzeko.



FLASH

Eskoletako jangelen diagnostia

Zer jan, halako Baztan proiektuaren barnean, Udalak eskoletako jangelen inguruko diagnostia egin du. Hau ezagutzera emateko hitzaldi-mahaingurua burutu zen ekainaren 22an Arizkunenean.

Afera sozioekonomikoetarako batzordea

Afera sozioekonomikoetarako udal batzorde informatiborako kideak onartu ditu Balleko Etxeak ahobatez: EHBilduko Joseba Otondo eta Mikel Ortega, UPNko Jose Javier Agirre eta Begoña Sanzberro, Geroa Baiako Ruben Ziganda, Baztango Ezkerrako Iñigo Iturralde eta Auzolanean taldeko Alejandro Martin dira izendatutakoak.

BAZTAN

KULTURA → FELIX ETA ITZIAR MENA ANAI-ARREBEN ESKUTIK

Bidasoko Trenaren mendeurrena ospatzeko liburua argitara

Felix Mena Martin beraien birraitatxiak trenbidearen inaugurazio egunean argitaratutako bilduma berrargitaratu dute

TTIPI-TTAPA

1916ko maiatzaren 28an ailegatu zen lehen aldiz Bidasoko Trena Elizondora. Eta mendeurrena ospatzeko, liburuxka bat argitaratu dute Elizondoko Mena argazki dendako Felix eta Itziar Mena Barberena anai-arrebek. Liburu berria baino berrargitalpena dela ere erran daiteke, beraien birraitatxi zen Felix Mena Martinek ere argazki-bilduma batean bildu baitzuen Bidasoko Tren Txikitoren lehen bidaia hura.

Ez da Felix eta Itziar Menak argitaratu duten lehen liburua. Duela hi-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Itziar eta Felix Menak, birraitatxi erabilitako argazki-makina, ateratako argazki eta argitaratu zuen liburuxkaren berrargitalpenarekin.

ru urte, Erratzu eta Elizondoko 1913ko uholdeen mendeurrenean ere orduko argazkiak bildu zituzten liburu batean eta urtebete beranduago *Elizondoko txoko eta unek I* liburua argitaratu zuten. Orain dator *Recuerdo de la inauguración del ferrocarril del Bidasoa Irún-Elizondo 28 mayo de 1916* liburuxkaren faksimile hau, 15 eurotan

salgai jarri dutena.

Mena argazkidendak 129 urte bete ditu Elizondon eta hain zuzen, Burgosen sortutako Felix Mena Martinek ireki zuen. Ondotik, Victorio Mena Sanziñena semeak eta honen emazte Graciana Irigoien Dualdek hartu zuten lekukoa. 1948tik



2012an hil zen arte Felix Mena Irigoienek egin zuen lan hori eta orain, honen seme-alabek, Felix eta Itziarrek segitzen dute familiaren ofizioarekin.



Pertsonaia

Jon BARBERENA

Iruña Hiria Nazioarteko Olerki lehiaketan saritua

Jon Barberena Ibarra elizondarrak irabazi du Iruña Hiria Nazioarteko Poesia lehiaketaren hamargarren edizioa, euskarazko atalean, bertze gaien artean heriotza eta Alzheimerra lantzen duen *Malatsa* poesia bildumarekin. Gisa honetara, 3.000 euroko saria eta bere lana Denonartean argialetxearen bidez argitaratu du. Epaimahaiak Barberenaren lanaren batasuna eta euskara azpimarratu ditu, «bertsoak aitzinera doaz, bada progresio bat. Euskara arraz zuzena erabiltzen du, naturala, ez barrokoa, ulergarria eta ederra».

Jon Barberena bertso-lari moduan egin da ezagun eta Nafarroako txapelketan txapel-dunorde ere izan zen 2007 eta 2008an. Literatur arloan, Iruñeko Udalak antolatzen dituen lehiaketetan saritua izan da behin baino gehiagotan. 2004 eta 2005ean bertso-peretan lortu zuen lehen saria eta 2011 eta 2015ean olerkian. Iazko Nafarroa Oinezeko kantuaren letra ere berak osatu zuen. Lehiaketaren gazte-rako atala Jaengo (Espainia) Tomas Hernandezek irabazi du, 174517 (*El corazón del pájaro*) lanarekin.

FANTXIKE
www.fantxike.com

BAZTANDARREN BILTZARRA
GAINEAN DUGU!!

GU PREST GAUEDE... ETA ZU?

ONGI PASA BESTAK!



GIZARTEA → NAFARROAKO ADMINISTRAZIO AUZITEGIAK

Dantxarineko eraikinaren bigarren lizentzia bertan behera utzi du

Lehenbizikoak balio duela eta lanak legalki ari direla egiten dio alkateak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Administrazio Auzitegiak alkateak Bostargi enpresari emandako bigarren obra lizentzia bertan behera uztea erabaki du maiatzaren 16an emandako ebazpenean. Udalak gogor kritikatu du, izan ere, lehenbiziko lizentzia anulatzen zuen 2015eko azaroaren 11ko ebazpenaren aurrean, «Herriko Etxeak Auzitegi honek balio gabetzen zuen lizentzia baten ordezko obra lizentzia berri bat ematen duenaren itxurak egiten ditu». Nafarroako Admi-

nistrazio Auzitegiak Bostargi eta Udalaren jarduna ez egokitzen jutzen du, «ez da zuzena berrikuspene eskatzea eta aldi berean balio gabetua izan den lizentzia berbera bigarren aldiz ematea, aldaketarik egin gabe proiektuan».

Santiago Villares alkateak, ordea, zera adierazi du: «2015eko otsailen emandako lehen lizentzia balio gabetu zuen Nafarroako Administrazio Auzitegiak azaroan, baina nahasi egin zen altuerak irakurtzerakoan eta gero onartu du bere akatsa eta berri ere baimena eman du aurtengo apirilean. Bitartean gertatu zen ezbehar larri hura, baina hark ez zuen baimenarekin zerikusirik izan, istripu bat izan zen». Errekurtsoak jarri zituen



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Espainiako Vueltako etapa hasiera eta bukaera Dantxarinean

Espainiako Vuelta txirrindulari itzulian protagonismo berezia izanen du Urdazubik. Izan ere, Dantxarinean bukatuko da irailaren 2ko hamahirugarren etapa, etaparik luzeena, 212 kilometroekin (Bilbo-Dantxarinea) eta bertatik abiatuko da Pirinioetako Aubisque-Gourette kaxko mitikoan bukatuko den hamalugarren etapa ere, Vueltako etapa erregina. Halaxe aurkeztu zuten ekainaren 17an Kultur Etxean. Ekitaldian izan ziren Manu Ayerdi, Nafarroako Gobernuako Garpapen Ekonomikorako presidenteordea, Javier Guillén Vueltako antolakuntzako zuzendari nagusia, Santiago Villares alkatea eta Miguel Indurain txirrindulari ohia, bertze hainbat ordezkari eta agintarirekin batera.

Udalak eta egun batzuk beranduago, abenduaren 4an, orain berriro auzitegiak balio gabetu duen lizentzia berria eman zion Udalak Bostargiri. «Lizentzia lehenbizikoaren berdina dela erraten du NAAK orai, eta anulatzen dutela, baina guk erraten dugu: 'lehenbizikoak balio baldin bazuen, bigarrenak ere, berdina izanik, balio beharko luke'. Dena den, lehenbizikoa martxan da eta lanak legalki egiten ari dira».

Urdazubi Elgarrekin taldearen ustez, ohikoa

da alkatearen aldetik ebazpen honetan islatzen den jarrera. Urdazubi Elgarrekin taldeak zalantzan jarri zuen abenduaren 4an emandako lizentzia berri horren legezkotasuna, eta idazkariari ere txostena eskatu zitzaion zentzu hortan, gaur arte inolako erantzunik jaso ez arren.

Urdazubi Elgarrekin udal taldearen erraetan, «berriro ere, auzitegiek agerian uzten dute alkateak hartzen dituen erabaki arbitrario eta okerrek Urdazubiko

herriarren etorkizuna larriki hipotekatzen dutela. Izan ere, komeni ez zaizkion lege, ordenantza eta araudiak behin eta berriro urratzen baititu. Urtero, Udalak 130.000 eurotik goiti erabilii behar ditu aholkularitza juridikoak nahiz urbanistikoetan, epaiketa eta txosten juridiko edo hirigintzakoak ordaintzeko. Eta hori dena, helburu bakar batekin, Azkar taldearen helburuak lortzea, horretarako auzitegien gaintik igaro behar bada ere».

BURKAITZEA
JATETXEA - ERRETEGIA



Eguneko menua,
Plater konbinatuak,
Karta, Bazkariak,
Sandwichak...
Taldeentzako bazkariak

Berezitasunak:
Olagarroa, rodabailoa eta txuleta

Alkerdi auzoa, Zugarramurdiko errepidea | URDAZUBI | T. 948 599 296
restaurantburkaitzea@gmail.com

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA · TABAKO-DENDA



Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarineatik
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanc@gmail.com

ARMUA JATETXEA



T. 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3.km
URDAZUBI

ORBELA
SENDERISMO ALBERGATZEA
BEINTZAKO OSTATUA



Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

SENPERE

OMENALDIA → INSTITUZIOEN PARTE HARTZEAREKIN

Victor Iturria zena omendu dute Larreko aretoan

Balore haundiak eta konpromiso sutsua izan zituen gudaria

Franck DOLOSOR

Victor Iturria gudari saratarra zena omendu dute Larreko aretoan, Catherine Marchand, bere biografia moldatu duen berriketariaren inguruan. Pierre André Durand prefetaz gain, Pierre Marie Nousbaum, Pierre Hirigoien eta Battitt Laborde Senpere eta Sarako auzapezek, Pierre Chabot koronelak eta Arretxea kolegioko ikasleek parte hartu zuten omenaldian.

NORTASUN HAUNDIKO GIZONA

Victor Iturria nortasun haundiko gizona izan zen. 1940ean munduko bigarren gerla denboran, Charles de Gaulle jeneralarekin bat egin

zuen kontrabandista ohiak. Gaitzeko ibilbidea izan zuen Iturriak eta bere gora beherak miatu, aztertu eta argitaratu ditu liburu eder batean Catherine Marchand *La Semaine du Pays Basque* astekariako kazetariak. Kattalinek idatzi duen biografian argiki ikus liteke balore haundiak eta konpromiso sutsua izan zituela Victor Iturria saratarrak. Churchill eta Eisenhowerrek lapurtarra aipatzen dute beren memorietan. Achille Muller Biarnoan bizi den Lorraine eskualdeko gudari ohiak ongi ezagutu zuen Iturria saratarra eta bere lekukotasun bizia biziki interesgarria izan zen. Mulleren arabera lapurtarra «paregabea» zen eta hoberena granadak botatzeko. Pilotaria izaki erakasle inglesak baino hobea zen euskalduna.

Sarako plazan ageri den oroitarriak Iturria-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Larreko aretoan bildu ziren prefeta, auzapezak, koronelak eta Arretxea kolegioko ikasleak.

ren ekarpena aipatzen du pilotari eta soldadu batek keinu bera egiten baitute, pilota eta granada botatzen dituztelarik. Misio guzietan beti gehiago egiten omen zuen saratarrak baina ez zuen eskerrik edo ohorerik galdetzen, egi-

ten zuen guzia normala zelakoan oraino pisakor dabilen gudari xaharraren erranetan.

Goizaldia bururatze-lako Magali Zubillagak kantatu zituen Mixel Urbistondo saratarrak moldatu zituen bertsuak:

*Gerla hitzak sartzen baitu, bihotz guzietan pilpira.
Entzun orduko jartzen gira, bake onari begira.
Bakearen ildoan, jakin izan duzu nola bira,
Oh Bittor Iturria zu, handietan handia zira.*



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Kezka eta haserrea piztu ditu urrea ustiatzeko proiektuak

Herritar eta hautetsi aintzen kezka eta haserrea piztu ditu Sudmine enpresak Lapurdiko lurren azpian izan liteken urrea miatzeko abian jarri nahi duen proiektuak. Hunkituak diren hamaika herrien artean zortzik proiektuaren kontra bozkatu dute jadanik eta Sylviane Alaux Lapurdiko diputatu sozialista ere ideia horren kontra altxatu da.

Ekainaren 10ean, berrehun bat lagun bildu ziren herriko pilota plazan egun berean proiektuaren sustatzaileek bilkura egin behar zutelako ondoan den hotel batean. Azkenean, bilkura bertan behera utzi zuten baina CADE talde ekologistaren ingurukoek mobilizazioarekin aitzina segitu zuten argi uzteko kalteak bertzerik ez dituela ekarriko Ezpeletako piperra ekoizten den eskualdean.

Laborarien arabera, enpresak lan egiteko baimena erdietsiko balu gero noiz nahi edozoin lur ustiatzen ahalko luke. EH Bai eta Lurzaindia taldeko kideez gain, Senpereko hautetsi batzuek ere parte hartu zuten protesta euritsuan. Enpresariak guzti honen aitzinean dio 10-20 hektara bertzerik ez litzuzkeela erabiliko eta natura zaintzea dela bere lehentasuna.

Postakutxa berria eman dute

Aintzirako aparkaleku handian postakutxa berria jarria dute. Auzokideei eskainitako zerbitzu berriarekin, ibilgailu gutiago piltuko dira karrika nagusiko postetxearen inguruan.



